

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 1998

Antolatzailea
Nafarroako Bertsozale Elkartea
Babesle Nagusiak
Nafarroako Gobernua - Nafarroako Aurrezki Kutxa

Bertsoen Transkribapena
Arantxa Iparragirre - Eli Belauntzaran
Azala
Asisko Urmeneta
Argazkiak
Jagoba Manterola
Koordinaketa
Joxema Leitza
Diseinua eta maketazioa
KULTURKARI
Inprenta
ANTZA

HITZAURREA

Nafarroako Bertsolari Txapelketa urtez urte egitearen arrazoiak asko dira, baina 98ko honetan Antolakuntzak bertsozalegoarengan parato du arreta. Jakin badakigu guztion partehartzearekin ateratzen dala aurrera Txapelketa eta horixe bera eskertu nahiko genuke. Batetik, orain arteko Txapelketetan kide izan eta aurrerantzean ere kide izanzen zaituztegun bertsolari, aurkezle, epaimahaiko, gaijartzaile eta, besterik gabe, laguntza eskatu eta gogoz eskaini diguzuenak. Bestetik, aurtengo edizioan ondoan izan zaituztegunak: herritako laguntzaile, Udal, Nafarroako Gobernu eta Nafarroako Aurrezki Kutxa.

Eskerrik asko guztioi.

AZALPENAK

EPAIMAHAIA

Jon Abril
Mikel Bufanda
Panpi Etxegoin
Patxi Larretxea
Beñat Soule
Joxe Urroz

IDAZKARIAK

Manu Gomez
Alberto Sanchez

AURKEZLEAK

Manu Gomez
Mixel Itzaina
Mikel Taberna

ANTOLAKUNTZA

Nafarroako Bertsozale Elkarte

EGITURA

Azken bi urtetan bezala, 18 bertsolarik hartu du parte eta guztiak kanporaketetatik hasi ziren kantuan. Hiru kanporaketa egin ziren, bakoitzean 6 bertsolari oholtza gainean:

- Martxoaren 13, Burlatan:
Manolo Arozena, Jexux Arzallus, Nerea Bruño, Estitxu Fernandez, Iñigo Ibarra, Joxema Leitza.
- Martxoaren 15, Leitzan:
Estitxu Arozena, Bittor Elizagoien, Oskar Estanga, Jean Louis Harinordoki 'Laka', Fermin Mihura, Iñigo Olaetxea.
- Martxoaren 21, Lizarra:
Mikel Altzuart, Joxe Fermin Argiñarena, Ortzi Idoate, Ekintza Landa, Xabier Legarreta, Xabier Silveira.

Finalurre bakarra egin ten, Zuraiden martxoaren 29an. Kanporaketa bakoitzeko bigarrena eta, orokorrean, puntu gehien zeuzkaten bost lehenak lehiatu tiren:

• Mikel Altzuart, Jexux. Arzallus, Bittor Elizagoien, Estitxu Fernandez, Ekintza Landa, Xabier Legarreta, Joxema Leitza eta Iñigo Olaetxea.

Finala Elizondon jokatu zen Apirilaren 5ean, kanporaketetatik zuzenean sailkatu ziren Manolo Arozena, Estitxu Arozena eta Xabier Silveirarekin batera, Zuraideko bost lehenekin: Bittor Elizagoien, Jexux Arzallus, Estitxu Fernandez, Xabier Legarreta eta Iñigo Olaetxea.

Txapeldun Estitxu Arozena gelditu zen eta Mariano Izetaren eskutik jaso zuen Txapela.

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 1998
BURLATA, 1998ko Martxoaren 13a

AGURRAK

Jesus Arzallus:

Manolo, Estitxu, Joxema ta ni
aurkezten zertako jardun
ikusirikan bi gazte berri
nola ondoan daukagun,
Ibarra ta Nerea,
txoria ta lorea
saiatu zaitezte egun.
Naparroako bertsolaritza
odol berritu dezagun. (ber)

Iñigo Ibarra

Naparroko txapelketan
lehenbizikoz kantari nau
Burlatan ekusten denez
giro politte, earra dau
Astrainen baltsa tartean
Iruñarran doinu hau
nerekin batera esan
bildutakoek: Riau-Riau !

Joxema Leitza:

Bertsolaritzak txapelketaren
hitza entzuten du gogor
ta horrek duen arduratikan
zaila da libratzen inor
Euskal Herriko txapelketa're
bukatu berri dugu hor
anai txikia zerbait badela
erakutsi nahian dator

JOXEMA LEITZA.

1. puntea: *Zer itxaropen duzu
aurrera begira ?*

J.Leitza: kanporaketa ere
aurreratzen ari da
nahiz ta askok lortzen dunak
badaukan dizdira
txapelketan puntuak
onenak ez dira.

2. puntua: *Maitasuna itsua
dela esaten da.*

J.Leitza: Era hortan munduan
bada zenbait prenda.
Maitasunak gaitzak'e
ditzakela senda
baina bere neurrian
hartzea hobe da.

HAMARREKO TXIKIAN, AZKEN DINA: GUTUNA.

J. LEITZA: Itoitz denok buruan
orain daukaguna
zorioneko kableak
mozteko eguna
nahiz presa bukatzea
ez dagon urruna
mantendu beti zuek
gaur askatasuna.
Horixe da ne(re) bertso
bidezko gutuna.

IÑIGO IBARRA.

1 puntua: *Euskal Herriak badu
aberastasuna*

Lbarra: orain artean beti
izan da laguna
horixe da Euskadik
dauken ondasuna
tamalez falta zafio
bere askatasuna.

2. puntua: *Ezagunak ugari
bainan lagun gutxi*

I.lbarra: egia esan dezu
nahiz hoi den itsusi
tarte hontan ez bait dot
inorre ikusi
euskal jaian dirade
hemen naute utzi.

HAMARREKO TXIKIA AZKEN DINA: INDARRA.

I. Ibarra: Atxiloketak eta
hola barra-barra
famili askotan da
tamalez negarra.
Horixe ez dugu guk
nahi gendun beharra
bizi modu krudela
benetan kazkarra
hau aldatzeko ein (de)zagun
guziok indarra. (ber)

NEREA BRUÑO.

1. puntua: *Guk nahi dugun guztia
lortu eta gero*

N. Bruño: hori lortzeko hemen
hamaika enredo
giroa dagolako
orain bero-bero
baina hori gertatzea
dut behintzat espero.

2. puntua: *Sufritu gabe ezin
daiteke gozatu.*

N. Bruño: Nik hori behintzat ez dut
bizitzan hautatu
esan behar dizut zerbait
ta orain barkatu
baina aholku horiek
zuretzat gordetu.

HAMARREKO TXIKIAN, AZKEN OINA: GRIÑA.

N. BRUNO: Zerbait azaltzeko hemen
nere alegina
nahiz eta ez izan une
oso atsegina
handikan entzun zazu
nere lagun mina
nahiz eduki gorroto
edo-eta mina
ez galdu zeneukaten
indarra ta griña.

ESTITXU FERNANDEZ.

1. puntea: *Udaberria gertu
akabo negua,*

E. Fernandez: euria aldentzeko
baneukan gogua.
Hotzikan egoteko
ez daukat burua
eguzkia irtetzeko
bazegon ordua.

2. puntua: *Oroitzapen batzuek
triste jartzen naute*

E. Fernandez: ahaztu nahi nituzke
agitz derrepente
baina ezin dut deus jarri
nik horien truke
desagertzea nahi dut
ta ni egon aske.

HAMARREKO TXIKIAN, AZKEN OINA: KEZKA.

E. Fernandez: Bertsolaria nauzu
ta gainera neska
sekula ez naiz ibili
bertsoaz igeska
bertsoa bezain gauza
politikan ez da
baina gaur gaizki nabil
ia beti trabeska
kanporaketa honek
ematen dit kezka.

BINAKA OFIZIOAN.

NEREA BRUÑO, IÑIGO IBARRA

Ostatu bateko komunetako atean elkarri begira zaudeten bi ikur zarete. Nerea amona eta Iñigo aitona. Jendea sartu aterean dabilela, solasean hasi zarete. Hiruna bertso zortziko txikian.

Nerea Bruño:

Neska denak joaten
dira komunera
ez da bate(re) zuzena
hauen egoera.
Duda bat daukat eta
hauxe da galdera:
zergatik joaten dira
bi edo hiru batera.

Iñigo Ibarra:

Seguraski kontu hori
izango da fiñe
neskan kontuak beti
dirade jakiñe
nek ordea barnean
sentitzen dot miñe
nere komun guzia
baitago zikiñe

N. Bruño:

Etxean uzten dute
ama eta aita
ta juerga egiten dute
gainera aparta.
Baina hala zeozer
behar duzu aipa
hemen mutilaren bat
kolatutzen baita.

I Ibarra:

Hori guzie ziur
pixka'at pentsatzeko
zure komunan aixe
ta gainera peto
pixkoat zikindu dute
bestean antzeko.
Horta sartzen baitire
ere zikintzeko.

N. Bruño:

Hemen gertatzen dira
hamaika halako
eta batzuk ez dira
ez ta kontatzeko.
Bostetan hartzen dute
beta etxeratzeko
eta horiek ez dira orduak
amon batentzako.

I Ibarra:

Holaxeko kontuak
agurentzat sarri
beti sentitzen gara
erabatez larri
giro guzie hola
beti negargarri
hurrengo baterako
mixto batzuk jarri.

KARTZELAKO LANA.**JESUS ARZALLUS.****Zortziko handian bertsoa osatzeko bukaera:**

*askotan entzun izan dut baina
oraindik ikusteko zai.*

Jesus Arzallus: Iparraldea ta hegoaldea
ditugu elkarren anai
boteretikan ezetz diote
ta guk beti diogu bai.
Zazpi probintziak bat egitea
zein euskaldunek ez du nahi?
Askotan entzun izan dut baina
oraindik ikusteko zai. (ber)

Bi bertso, doinu eta neurri librean kantatzeko gaia: Epailera zara. Galiziako Ramón San Pedrori hiltzen lagundu zion pertsonari sententzia eman behar diona.

J. Arzallus:

Epailera naiz eta hemen nago
mailu txiki bat hartuta.
Gogoan daukat gizaki harek
egin zuen burruka
berak hiltzea eskatu zuen
hori ezin leike uka
nahiz ta presio asko daukadan
nere iritzian aurka
San Pedron nahia bete zuenak
bate errurik ez dauka.
Harek sufritzen pasatu ditu

munduan hainbeste urte
ta borondatez hiltzeko zuen
behar zen haina bertute.
Kasu horretan neronek ere
berdintsu egingo nuke
mola ere ez naiz hasiko
horrentzako zigor eske
ohore handiz utzi behar dut
eta betirako aske. (ber)

LEITZA, 1998ko Martxoaren 15a

AGURRAK

Iñigo Olaetxea:

Nork ez daki indarra dela
Leitzarren ezaugarria
Migeltxo eta Iñaki bera
adibidetzat jarria
bertsotan berriz arma dittugu
hitz, doinu eta neurria
ta ideia oinarria (B)
txapelketa da bidean traban
dagoen harri izugarria
ia gaurkoan jasotzen dudan
larehun kiloko harria (B).

LAKA:

Arratsaldeon jaun andereak
bestan da bertsolaritza
zure omena Iparraldean
ere hedatu da Leitza
Frankieneko seme on bati
eman bait zenion hitza
euskaldun lehial jakintsuenen
aho mihitan zabilta
zure lurretan kantatu nahian
neraman nere bizitza (B).

ZORTZIKO HANDIAN, OFIZIOKA 3NA BERTSO.

IÑIGO OLAETXEA - FERMIN MIHURA

Arratsaldeko 5ak dira. Iñigo ikastola atarian semearen zai zauden aita zara. Ume guztiak ateratzerakoan hor ikusi duzu zure semea goitik beraino pinturaz zikinduta. Zu Fermin irakaslea zara.

Iñigo Olaetxea

Egia erran hau ez da behintzat
nere gogoaren erantzuna
semea hortik ikusi eta
ni nago kopet iluna
goitikan bera margoturikan
gainera koloreduna
aizu hau al da matematikan
erakusten diezuna (B).

Fermín Mihura

Matematikan xuxen daramat
gero dator jostaldia
kisu untzia bota dut eta
ez da jarririk garbia baina
etzazu atxiki luzaz
horrelako errabia
dutxa batekin garbituko da
ez izanikan nagia (B).

Iñigo O

Beraz horrela moldatu nahian
zenuke zuk azkenean
nahiz ta kolore biziak hartu
soinaren aldamenean
baina dutxara eraman zazu
zuk diozu zuzenean
ez du hain ongi hartuko ordea
amak ikusten dunean.

Fermín M.

Amak geroxo bere ajera
izan dezake itzela
bainan garbitu ordu joango
zaio hari ere goibela
ni zure partez poztu ninteken
horrekin baietz bestela
erakusten du zure semea
guziz kementsua dela (B).

Iñigo O

Egia da bai kementsua da
ta gainera ez jakina
horregatikan aita batentzat
hori ez da atsegina
koloreetan ez berdintzea
hori zuzen ahalegina
zergatik daude besteak garbi
eta nerea zikina (B).

Fermín M.

Besteak garbi, zurea zikin
hola gertatu da behingo
baina zure semeak daukala
etorkizun ona nago
paper xurian aldiz ez du
egiten hainbeste margo
ez da dudarik hola segituz
gora zaizula juango (B).

ZORTZIKO HAUNDIAN OFIZIOKA 3NA BERTSO LAKA - BITTOR ELIZAGOIEN

Zu, Bittor baserritar bat zara. Baserri ondoko arbol pare bat mozten ari zarela, Laka basozaina agertu zaizu kargua hartuz.

LAKA

Nere lanean beti nabila
han ta hemen oihan zaina
egungo huntan ni baserritar
hunekin topo egina
zuhaitz horiek egoten xutik
zu gizon deabru zikina
ez dakizue lege hori da
denentzat berdin egina (b).

Bittor Elizagoien

Zein gogorra den udaberrian
hola negua hastea
ez dezu nahiko arbol azpian
hotzak hiltzen egotea
Bakar bakarrik falta zaidana
ixuna jartzen bastea
alde egin zazu ez badezu nahi
zure lepoa moztea (b).

LAKA

Hunek ez dauka bate beldurrik
neri desafiatzeko
baina hau baino gehio behar dut
gaur zu bakean uzteko
zuhaitzak dira inguramena
ederki begiratzeko
zuk elektrika eros ezazu
sukaldea berotzeko (b).

Bittor Elizagoien

Karrera ere egin zenduen
bertze askoren antzeko
baina oraindik badezu asko
jakin edo ikasteko
Nik arbol batzuk moztuagatik
ez da izango kalteko
bi arbol moztu egiten ditut
gero hamar landatzeko (b).

LAKA

Orain anean nik ez dut uste
bat bera den landatua
baina bi hauek monea bera
da nahiko bekatua
hara multa bat besterik gabe
zure izena hartua
ikas ezazu zuhaitza dela
landare bat sakratua (b).

Bittor Elizagoien

Zuhaitza dugu aitz sakratua
hori ez dizut ukatzen
bainan hala ere ez dut ulertzen
zertan zabiltzan tentatzen
zure libreta atera eta
neri ixun hori jartzen
eta pinua ta haritz arbola
gero ez dituzu ezagutzen (b).

BAKARKA**Bina puntu eta hitza emanda**

Puntua: *"Zer motiboa duzu
kantari hasteko*

Oskar Estanga

Uste dut hau ez dela
neretzat kalteko
ta txapelketan nago
ni urte urteko
bertsoa alperrean
inoiz ez galtzeko

Puntua : *" Batzutan negarra
ta bestetan irria...*

Oskar Estanga

Ez da erreza horiei
hartzea neurria
batzutan poza edo
negarran larria
bizitzak hola dauka
horixe jarria.

HAMARREKO TXIKIAN AZKEN ERRIMA EDO HITZA: LANA**Oskar Estanga**

Ez da oso erraza
bizitzaren zama
txikitatikan lana
dator guregana
lortu nahi dugu poza
dirua ta fama
baino ea txikitzen
zaigun gure afana
bizitza bera ez dedin
bihurtu gaur lana.

BAKARKA
Bina puntu eta hitza emanda

Iñigo Olaetxea

Puntua: *"Jaten eta edaten
ez zara motela,..."*

Ederki jaten dugu
zerriak bezala
ongi ikusten zaigu
ederki gaudela
beste gauzik ez dugu
zer egin bertzela.

Puntua: *"Bertsolaritzak badu
hainbeste balore..."*

Hemen kantatzen gaude
benetan dotore
kantatzen duenari
keinu ta ohore
eszenarioan baino
mahai baten hobe.

HAMARREKO TXIKIAN AZKEN ERRIMA EDO HITZA: MINA.

Iñigo Olaetxea

Nola sufritzen dugun
hori da jakina
bertsoa batzutan da
nahi eta ezina
batzutan sufrimendu
leike atsegina
ongi irtetzen hada
gaur nere alegina
orduak kenduko zait
orain dudana mina (b).

OFIZIOKA ZORTZIKO TXIKIAN.

ESTITXU AROZENA - LAKA.

Zu Estitxu, enpresa, edo lantegi bateko zuzendaria zara, eta zu Laka, langilea. Gaur Estitxuk deitu zaitu lanpostua mantentzekotan ordenadorea erabiltzen nahi ta nahiez ikasi behar duzula esanez.

E. Arozena: Kontu honekin arren
ez zaitez ikara
nahiz ta nahiko zaila izan
lehenengo bolada,
enpresa hontan beti
puntakoak gara
tresna erostea
hurrengo menderako
prestatu behar da
traia laia, traia larria, larria
prestatu behar da.

Laka: Lanean ikasi nuen
bainintzan gaztea
konduak egin ditut
nagusi maitea
erabakia duzu
neri gostako zeraut
gaur hortan hastea
traï laj , laralai, laralai
gaur hortan hastea.

E. Arozena: Aspaldi erabaki
hori erostea
badakit zaila dela
horretan hastea
zurekin komeni da
poliki joatea
gaurkoan nahikoa duzu
pinten ikastea
traï laj, traï larai, laralai
pinten ikastea.

Laka: Formakuntzarik gabe
aise dut piztuko
baina konduak nola
nik hortan sartuko
nene borondatea
baita ttipituko
debaldeko gastuei
egiezu uko
traï laj, traï larai, laralai
egiezu uko.

E. Arozena: Zuzendarian aurka
zure eraso
hori neretzat ez da
agitz eroso.
Alferriko gastuei
eman nahi pasoa
beraz zu bidaltzea
lehenengo pausoa
traï laj, traï larai, laralai
lehenengo pausoa.

Laka: Aterabide onak
bestalde badaude
ni ere hemen hago
iritzien jabe
erran dut ez naizela
tresna borren alde
konduak berdin laister
irten hori gabe
traï laj, traï larai, laralai
irten hori gabe.

OFIZIOKA ZORTZIKO TXIKIAN

BITTOR ELIZAGOIEN - IÑIGO OLAETXEA.

Zu, Bittor, aita eta zu, Iñigo, semea. Aitak, Bittorrek, marihuana landare batzuk aurkitu dizkizu zuri Iñigo, etxeko baratzen.

- B. Elizagoien:** Nere semeak badu
hainbat kategori
nahiz ta ez dioten esan
gaur arte inori
baratzean ni bainaiz
kolpean erori
nondik ekarri dezu
porru klase hori? (b)
- I. Olaetxea:** Goraipatu nahi nuke
aitaren izena
behintzat ez dago haserre
gauza nabarmena
igual zuk ere erre
dezakezu dena
Jamaikakoa da ta
dagoen onena. (b)
- B. Elizagoien:** Nondik ekarri ditun
egindu zuzendu
gezurra dela ere
seme ematen du
erretze kontu horiek
burutikan kendu
amonak entsalada
hoikin egiten du. (b)
- Lolaetxea:** Amonak ere badu
hainbeste meritu
baina hori entzunda
ni gaur naiz harritu
amonak entsaladan
mesedez aditu
etzituen jarriko
erreko balitu. (b)
- B. Elizagoien:** Harriturik utzi nau
semeak zeharo
holakorikan ez zen
landatzen gehiago
entsaladan jan dut ta
oso ona dago
hurrengo urtean jarri
mesedez gehiago. (b)
- I. Olaetxea:** Nere aitak berriro
hauxe bota digu
nahiz ta ez dun ematen
pagan hainbat diru
itxu-itxu dago gaur
guztiok testigu
gauza onak guztioi
gustazen zaizkigu. (b)

KARTZELEKO LANA.

LANA: - Azken puntua eman eta zortziko handian bertso bat osatu.
- Gai bat eman eta doinu eta neurri librean bi bertso osatu.

Estitxu Arozena. '

Puntua: *Itxaropena inola ere
ezin dugu orain galdu*

E. Arozena: Gure eskarien ukatze honek
zentzu handirik ba al du ?
Euskal presoen urruntasuna
behin ta berriro ugaldtu
nahiz ta bidean mita oztopo
eta hainbat traba azaldu
itxaropena inola ere
ezin dugu orain galdu.

Gaia: Lehenbizi Fernando Amezketarra, bigarren Lazkao Txiki, eta hirugarren zuzen zara marrazki biziduna bihurtu nahi duten bertsolaria. Zer deritzozu?

E. Arozena: ETB orain bihurtu zaigu
bertsolarien gunea
Lazkao Txiki hor agertu da
bera zenean umea
horregatikan eztabaida gai
da nik daukadan unea
nik nahiko nuke nere bizitza
hor agertzea xumea.
Pozgarria da, ni izango naiz
lehenengo emakumea. (b)

Badakizue bertsolariak
nola harro xamarrek garen
telebistatik atera eta
gelditzen gera nabarmen
horregatikan nere zalantzak
agertu nahi ditut hemen
behin baino gehio ikuste hori
ez da polita izanzen
beraz, telea itzali hainbat
errepikatu baino lehen. (b)

KARTZELEKO LANA.

LANA: - Azken puntua eman eta zortziko handian bertso bat osatu.
- Gai bat eman eta doinu eta neurri librean bi bertso osatu.

Fermin Mihura.

Puntua. *Itxaropena inola ere
ezin dugu orain galdu*

F Mihura: Txapelketarat azaltze horrek
naski meritua badu
nahiz eta orain arte gazteek
bildu gehiago gradu
berrogeita hamar urtez gora ta
airos nauzue azaldu
itxaropena inola ere
ezin dugu orain galdu. (b)

Gaia. Lehenbizi Fernando Amezketarra, bigarren Lazkao Txiki, eta hirugarren zu zeu zara marrazki biziduna bihurtu nahi duten bertsolaria. Zer deritzozu?

R Mihura: Marazki bizidun horietan
xelebreak hor emanak
Amezketako Fernando eta
Lazkao Txiki' re zena
zinegileak zorionean
orain datoz neregana
hauxe dugu hauxe plana. (b)
Alferrikako ez da izana
orain arte egin lana
azken batean aurkitzen baitut
espero nuen fama. (b)

Hara poliki-poliki aurki
nik azkenean gradua
hara nolatsu, zoinen ederki
aurki duten helburua
alferrik beraz ez da izana
egina dudan gudua
hori nuen aidurua. (b)
Pentsa ezazue zahar ta betea
etorriko da dirua
pobreentzako partituko dut
hautsi gabeen burua. (b)

LIZARRA, 1998ko Martxoaren 21a

Bertsolariak: Ekintza Landa, Mikel Altzuart, Ortzi Idoate, Xabier Silveira eta Xabier Legarreta. Joxe Fermin Argiñarenak txapelketatik kanpo kantatu zuen, Antonio Olanoren lekua betez. Mikel Taberna gai-jartzaile eta 200 ikusle inguru.

AGURRAK

Ekintza Landa: Martxoan hogeita bata
udaberrian sarrera
bihotz taupadak azkartu
odola gora ta bera
maitasun kontutan ere
aldatzen dugu jarrera
urduria bihurtzen da
norberaren jokaera.
Bertsolariak bertsotan
pertsonek ere bagera
udaberria ez dezagun
gaur behintzat izan kaltera.
Eraginak ahaztuta
jarrai dezagun aurrera
bertsoak lora daitezen
lore berrien antzera.

Mikel Altzuart: Udaberria da lora
bertsotarako denbora
badator gura ondora.
Nafarroako lur zabaletan (b)
berri saiolik-saiora (b)
gaur Lizarraren altzora (b)
eskola honen aretora (b)
etorri gara gustora. (b)

ZORTZIKO HANDIAN

XABIER SILVEIRA - EKINTZA LANDA.

Karrikaren bi aldeetako espaloi bantan eskean zaudeten bi lagun zarete. Xabier belauniko eta burua makurturik, eta Ekintza musika tresna bat jotzen.

X. Silveira: Atsekabea ekiditeko
musikarekin dotore
hornitzen duzu zure eskea
eta lortzen dezu doble.
nik ez dut berriz, zuk aina suerte
ta zuk adina adore,
oraindik ez dut dirurik lortu
txistu bat erosteko `re. (b)

E. Landa: Txistu batekin diru eskea
hobe egingo zenuke,
zure farrera legala denik
mola ere ez uste.
Musikarako biek badugu
guk nahi hainbeste birtute,
dirua behintzat nik jasotzen dut
emandakoaren truke. (b)

X. Silveira: Egoera hau ikustearen
ondoren dudan ikara,
niri batere bota gabe doa
jendea zure Hormara.
Zuri dirua bota ta gosez
daduzkat zazpi alaba,
heuren gosea musika tresnan
baldintzatu behar al da? (b)

E. Landa: Jendea errez etortzen da hona
entzunda nere zarata
burua makur ta belauniko
besterik ez zaigu falta.
Jakín ezazu burua altxatzen
hori duintasuna da ta,
burua makur eskatzea berriz
duintasun falta galanta. (b)

X. Silveira: Beraz, zu baino kaxkarrago naiz
ni patuaren balantzan,
ala ere zertan harrotuko naiz
jendea jarzeko dantzan.
Burua makur jarraituko dut
gaur arte nengoen trazan
tripak egiten duen musika
nahikoa den esperantzan (b)

E. Landa: Zure tripako ahots horiei
hasi hobe kaso egiten
gurí begira barrezka lasai
ibiltzen den hainbat kirten.
Jaso burua ta zerbait eman
bestela ezer ez da hartzen,
besterik gabe ikus dezaten
guk ez dugula eskatzen. (b)

ZORTZIKO HANDIAN

XABIER LEGARRETA - ORTZI IDOATE.

Zu Xabier lizarra aldeko ardo bodega bateko nagusia zara eta gaur joan zara lehendabiziko aldiz hemen ireki berri duten sagardotegi batera. Barrenean zaudela, Ortzik, sagardotegiko jabeak "Txotx" egin du oihu.

X. Legarreta: Zabal-zabalik ikusten ditut
nik bi kupel edo hiru
giro kaxkarra ez dago eta
guztiok gera testigu.
Nagusi jaunak ahots altuan
zeozer argitu digu
barkatu baina aizu nagusi
"txotx" horrek zer esan nahi du? (b)

O. Idoate: Etorri eta obserbatzea
baitago zure aukeran
konturatu naiz ta pentsatzen dut
aizu ze tontoa zeran
etorri zara alde hontara
españolistoan eran
"txotx" esatean zutittu zaite (b)
zerbait nahi baduzu edan. (b)

X. Legarreta: Nagusi jauna aldrebestu da
ez dago esan beharrik
hitz arraroen bidez egin du
itxura txarren marmarrik.
Egoskorra ta setatia da
ni nago haserre xamarrik
Esan nahi al du edan leikela
zuk esatean bakarrik? (b)

O. Idoate: Hemengoa ez dela mutiltxo hori
da gauza nabarmena
itxura horiekin gora begira
zinez ematen dit pena.
Lehenengoa ez da hola etorriz
eta ezta ere azkena
nik esatean edaten baita (b)
sagardorik hoberena. (b)

X. Legarreta: Ardo bodega bat daukat hemen
ez da batere kaxkarra,
likido honek omen du gainez
materia prima sagarra.
Ikusten denez hemen badago
esateko gauz bakarra
nerean beltza ta ona dago
hemen horia eta txarra. (b)

O. Idoate: Txarra dela eta erantzun nahi dut
nola ez, orain farrezka
ta ardorikan ateratzea
mesedez ez zazu eska.
Ordain itzazu zor dituzunak
hiru edo lau mila pezta,
sagardo txarra badugu baina (b)
lokala jendez gainezka. (b)

BAKARKA.

LANA: bina punturi erantzun eta oin bat eman eta bertso bat hamarreko txikian osatu.

Lehenengo puntua: *Ekonomia bikain
dago azken hontan...*

X. Silveira: hori entzuten da bai
telediariotan
ordea ni lanean
nabil egunotan
ta ez daukat dirurik
nere poltsikotan.

Hamarreko txikian azken oina: ITZALA

X. Silveira: Aspaldian famatu
izan dugu GAL-a
BVE, Triple A,
jardun ziren hala
euskaldun pila hilez
euliak bezala
ta beraien artean
hil zuten Argala.
Gure zaindari izan bedi
jaun haren itzala. (b)

KARTZELAKO LANA

Zortziko nagusian osatzeko bukaerako puntea:
*Baina halare beharrezkoa
dela aitortu dezagun.*

Xabier Legarreta

Atzekaldean nere zai zeunden
hainbat ta hainbat kantu lagun.
Kazadora're kartzelan aztu,
ez naiz ni serio jardun
nahiz eguzkiak ez den berotu
nago nahiko kopet ilun
baina halare beharrezkoa
dela aitortu dezagun.

Herriko apeza zara eta ikusirik gazteak ez zaizkizula mezetara etortzen erabaki duzu zerbait asmatzea horiek elizara erakartzeko. Kontaiguzu zer pentsatu duzun.

Xabier Legarreta

Gazteekiko beti jardun naiz
ni haserre eta teman.
Apaiza dago nahiko pentsakor
ikusi daiteken eran.
Gazteek nunbait ez dote orain
Jesusen kaliza edan.
Aldaketa bat egin behar det
nahiz ez itxuroso eman,
aurrerantzean meza emango det
baina herriko tabernan (b).

Elizkizuna aldatzea da
herriarentzat mejora,
ta aipatu det non egin behar
dedan lehengo aproba.
Lau katu ez da etortzen
eta hola ez goaz inora.
Denai zeozer al dan azkarren
aldaketa beharko da,
saiatuko naiz ez dedin igo
bi ardo terditik gora.(b)

ZURAIDE, 1998ko Martxoaren 29a **Nafarroako Txapelketako Final Aurrekoa**

Bertsolariak: Jexus Arzallus, Mikel Altzuart, Bittor Elizagoien, Estitxu Fernandez, Joxema Leitza, Xabier Legarreta, Ekintza Landa, Iñigo Olaetxea.

Bost bertsolari sailkatu ziren Elizondoko finalara joateko.

Epai mahaiekoak: Jon Abril, Mikel Bufanda, Panpin Etxegoien, Patxi Larretxea, Beñat Soule eta Joxe Urroz.
200 entzule inguru eta gai-jartzaile Mixel Itzaina.

AGURRAK

Bittor Elizagoien

Pottoak egiten da
Bittor txapelduna
saio bakoitzean bi
egiten dituna
gero zigorra ez da
izaten biguna
anparatu nazazu
zerugoiko Jauna
potorik egin gabe
amaitzen eguna. (b)

Joxema Leitza

Oharkabean Burlatitikan
iritsi zaigu Zuraide
Elizondora joango gara
horretan seguru gaude
ta kantatzera joan ezkerro
ez al da askozaz hobe
gaur alegina egingo dugu
indarrrik gordetu gabe. (b)

Xabier Legarreta

Erabakior izan laikenez
nork egin nahi du errena
etorri geran zortzikoteak
ez dauka lasai barrena
baliagarri ez dakit baina
adibide bat urrena
Elizondora helduko banitz
berdin zait zenbatgarrena
hemendik zuzen joango nintzake (b)
Dantxarinean barrena.(b)

Iñigo Olaetxea

Bertso kontutan urterik urte
ikasi ohi da gehiago
urte guzia pasa ondoren
bertso doinuen esklabo
lengo urtekoa berdindutzea
litzake nahiko arraro
lengo urtean finalerditan
seigarren eta akabo
seigarrenetik bosgarrenera
ze ikasi gutxi dago.(b)

Estitxu Fernandez

Bortziritako bertso eskolako
partaideak parez pare
Silveira, Estitxu eta Manolo
jada finalean daude
eta gaur sartu nahi dute Makek
Bitorrek baita nik ere
bertze hirurek ez dutelako
ezer eginen gu gabe. (b)

Mikel Altzuart

Denendako Jira desberdinak
txapelketaren usaiak
alde batetik hor zaituztegu
ahin adi eta alaiak
bertze aldetik dardarka daude
gure hertze ta erraiak
ai zenbat kontu baditu hemen
bertso kaskarren ibaiak
Elizondoko ez dugu denok
nahiko ditugun bi gaiak
ia gaurko hontan gaiak
onak dituen itzaiak
zein aintzinean zein gibelean
nahiz erabaki epaiak
bertsoak du pisu haundiena
ta ez borren bertze leiak.

Ekintza Landa

Falta direnak gogoan
bihotz guztien txokoan
Euskal presoan hutsune latza
sentitzerakoan(b)
behar ditugu ondoan
behar ditugu kanpoan
herri osoaren duintasuna
ez jarri jokoan. (b)

Jexus Arzallus.

Agur esanez egin nahi nuke
lehen hasera bederen
kazetari batek belarriak
erne jarditza ondoren
Iñigo Olabarri
zerbait gogoangarri
kantatzen bada Zuraiden
egunkariko artikulok (b)
ea klitxez aldatzen den (b).

OFIZIOTAN. HIRUNA BERTSO ZORTZIKO HAUNDIAN.

BITTOR ELIZAGOIEN - JOXEMA LEITZA

Zu, Bittor ama zara eta zu Joxema, bere alaba. Orain arte aitz ongi hartu duzue elkar. Oso lagunak izan zarete ama alabak, azken aldian ordea, zakurra eta katua bezala zabilzate.

B. Elizagoien

Mundu hontara ekarri nuen
nere alaba lehenbizi
eta ondoren al nuen gisan
ahal bezain goxoki hazi
orain marmarra eta hasarrea
gure artean nagusi
alaba gehien behar dudanean
zertako zoaz ihesi? (b)

J. Leitza

Azken aldian egin duzuna
ez da batere normala
eta ihesi zergatik noan
esango dut berehala
zergatik ezin bizi gaitzke
garai batean bezala
zure alaba izan nahi nuke
eta ez zure itzala. (b)

B. Elizagoien

Garai batean zu izan zinan
bere amaren txoria
oso gustora eskeini nizun
nere magalen kabia
orain aitzaki ugari baina
gauz bat bada nabaria
hola ordaitzen al dezu amai
eman bularren saria.(b)

J. Leitza:

Azken aldian ama alabak
ika-mikan gabiltz eta
zuk'e bazenun alaba hazia
erantzun hori gordeta
notable batez beharko dugu
pasa gaurko azterketa
zure bizitza egin ezazu
ta bestena errespeta. (b)

B. Elizagoien:

Diozun gisan ni izango naiz
zuretako ama txarra
baina hala ere utziko nauzu
bi begietan negarra.
Joan aurretik gauz bat badezu
gutxinezjakin beharra
lagunak hainbat izan daitezke
baina ama bat bakarra. (b)

J.Leitza:

Alaba bat ta baitare duzu
semea edo mutila
batarekin ta bestearekin

ez zaude oso trankila
ama bakarra dela esan duzu
ez zaude oso ixila
ta bakar hori dudana baino
hobea izan dadila. (b)

XABIER LEGARRETA - IÑIGO OLAETXEA.

Zuk, Xabier, uste duzu Iñigo alkoholak bere menpean hartu duela. Iñigok aldiz ez du hori horrela denik uste. Hiruna bertso zortziko handian.

X. Legarreta:

Zure ideiak garai batean
ez ziren batere motzak
sentibera den seinale asko
baditu nere bihotzak.
Entzun itzazu nere aholkuak
ta nere barrengo hotsak
orain alkoholak hartu baizaitu
eta bela heriotzak. (b)

I. Olaetxea:

Beraz, diozu heriotzaren
aurren egoteko adi
baina halare sasoi beteak
nagola ez al da nabari?
Egunean lau-bost litro ardo
nahiz zuretzat den ugari
alkolikoa ez zafio deitzen
pixkat edaten dunari. (b)

X. Legarreta:

Nere ustetan zure ideiak
behar dira imajina
len ez baizinan orain bezela
alkolikoen berdina.
Edaten dezu zuk egunero
lurrera erortzeko adina
ta alkoholak hilda hiltzen den harek
hartzten du minik gutxina. (b)

I. Olaetxea:

Zure hitzetan alkoholak dakar
gero egotea aika
baina etxean gustora daude
horrekin ama ta aita.
Sagardotegi ta ardotegiak
behar ditugu guk mana
Euskal Herrian alkola hartzea
bizi poza hartzea baita (b)

X. Legarreta:

Zure ideiak alda beharrez
hasita nago ni aurrez
gaztea zinan eta bizitza
hartu zenuen indarrez.
Bate balio baldin badizu
entzun zaidazu mesedez
bizi poza igual hartuko dezu

baina bizi luzerik ez. (b)

Olaetxea:

Alkol kontura hainbeste jendek
hartuz mila desengaño
sagardotegi inguruetan
hainbat zebiltzan antaño
bizimodua alda dezadan
erran duzu orain, koño
hobea dugu gutxi ta ongi
luze eta gaizki baino. (b)

ESTITXU FERNÁNDEZ - MIKEL ALTZUART.

Zu, Estitxu, etorkizuna asmatzen duen aztia edo igarlea zira eta Mikel zuregana etorri da bere geroaren berri eman diezaiozun. Hiruna bertso zortziko handian.

E. Fernandez:

Zure geroa jakin nahi duzu
ta hortarako hartu beta
zure ondoan gustora nago
eta ez nago erreta.
Zure bizitza motza izango da
baina jartzazu arreta
alkolikoak bezala agitz
ona izango da eta (b).

M. Alzuart:

Etorkizuna asmatzen duzu
jenio ta birtutea
nere bizia laburra dela
eta sortzen zait nekea
ez nun espero inolaz ere
horrelako atakea
baina erran zazu zein izanen den
ni hilko naizen urtea. (b)

E. Fernandez:

Nahiz eta zure heriotz urtea
nik burutik ezin kendu
une honetan beharko duzu
helburu hori atzendu.
Ezer gehiego ezin dut erran
bere horretan mantendu
bizi honetan bakoitzak bere
etorkizuna egiten du. (b)

M. Altzuart:

Gisa hontako sorginak ere
hemen baditugu usu
hainbat galdera erantzun gabe
ta kezkatuta naukazu.
Etorkizuna eginen dut nik
baina nola ez dakit kasu
hori esaten ez badidazu
alkoliko bihur nauzu. (b)

E. Fernandez:

Alkolikoen kasua ez nuen
zure ahotik espero
une honetan iruditzen zait
bihurtu zarela ero
nik ez dut gehio ezer emanen
hor geldi zaitez zu bero
bost mila duro utzi gehiago
jakin nahi izanez gero. (b)

M. Altzuart:

Ez ote duzu garbi ikusten
nere galtza ta galtzerdi
sakela hutsa ekarri dut gaur
ta horrekin zenbat komedi.
Mila duroko alferrik gero
ez eskatu orain neri
ongi biziko naizela bada
bertze guztia gaitzerdi. (b)

EKINTZA LANDA, JESUS ARZALLUS

Zu, Ekintza, etxea erosteko dirurik ez duen gaztea bait zara, horretarako, Jesus, banketxeko zuzendariarengana jo duzu mailegua eskatzera. Hiruna bertso zortziko handian.

E. Landa:

Askatasuna lortzeko noski
badakit zein den bidea
etxe bat nahi dut ta banketxean
eskatu behar mesedea
jarri ezazu nere gogoan
arreta eta fedea
nik ere badut nire etxea
izateko eskubidea.

J. Arzallus:

Nere langintzan holako asko
ditut halabeharrear
dirurik ez dun gazte bat daukat
gaur ere nere aurrean
atera bide bat badaukat nik
ta momentu laburrean
nahi hainbat diru emango dizut
ehuneko hamarrear.

E. Landa:

Modu onean dirudienez
dirurik ez dit utziko
dirurik gabe nere etxea
inoiz ez dut eraikiko.
Ez naiz biziko dirurik gabe
inola ere betiko
gaztetasuna ta bizi poza
ez al da ziurtasun nahiko?

J. Arzallus:

Ziurtasuna nahi badezu
zuk gaurko edo biharko
bankeroakin konpon zintezke
zu tratu honetan bapo.
Hala ere berme pixka bat nahi dut
ta hori jarri beharko
inoiz ordaintzen ez baduzu duk
etxea bankuantzako.

E. Landa:

Bakar-bakarrik jasotzen nabil
mehatxua ta ikara
laguntza behar eta bakarrik
neretzako hor da traba
gazteentzako etxeak ere
izateko garaia da
gainera zuri gutxi axola
dirua zurea ez bada.

J. Arzallus:

Nahiko dirua izango duzu
horretaz ez izan izu
baina ondorena zer izan leike
aurretikan badakizu.
Nik bizi poza emango dizut
baina eman zazu kasu
diruak ez duela bihotzik
jakin beharko bait duzu.

BANAKAKO PROBA. BI PUNTU ETA GAIA.**BITTOR ELIZAGOIEN.**

*Gertu baino urruti
hego ta iparra*

ia noiz kentzen dugun
artean dan marra
denok eman beharko
daukagun indarra
hortarako daukagu
guk bildu beharra.

*Jadanik finalean
egonen bazina*

hortarako egin behar
oso saio fina
Leitzan harto nuen nik
jesukriston mina
hala ere nahi nuke
pasatu aintzina.

Hitza: JANA.

Entzule maitek entzun zazute
hemendikan nere hitza
janan gainean al bada nahi dut
behar bezalaxe mintza
gure artean bortitza dago
mundo hontako bizitza
non dago gure eskeintza
hori da bide murrizta. (b)
Hemen guztiak hondatuz lasai
ederki biziz gabiltza
eta munduan gure erruaz
goseak hiltzen dabiltza.(b)

JOXEMA LEITZA

*Euroarekin denok
gaude erotuta*

diruarekin egin
behar da burruka
guk gutxi daukagula
ezin dugu uka
eurorik ez daukagu
eta peztak buka.

*Aurtengo txapelketan
gazteak nabari*

bi berri behintzat hasi
zaizkigu kantari
ekin beharko zaio
bertso eskolari
gero ere sortuko
zaizkigu ugari.

Hitza: ADISKIDEA.

Sortzen du itxaropena
ta gainera nabarmena
hoi da gizaki bat mundu hontan
ikusten ez dena.
Alaitasun eta pena
bik batera dituen
hoi da gauza bat diruarekin (b)
ordaindu ez daitekena. (b)

XABIER LEGARRETA

*Zuraide ta ELizondo
muga da tarteko*

gu hona etorri gera
gaur mugak hausteko.
Intentzio galtzerik
ez al det usteko
baina asko falta da
hara iristeko.

*Aspaldian ez duzu
protestarik egin*

gaur ez nago gustora
nahi badezu jakin
ez baitegu asmatzen
gai jartzaileekin
nahi badezu alde ta
guri utzi ez in.

Hitza: IZERDIA.

Astean zehar gau eta egun
aritzen naiz igeltsero
ta galerazten urreratzen zait
hainbat eta hainbat ero
erabiltzen det eraikuntzako
hainbat material jenero
lendabizi teilak edo
eta porlana da gero (b)
uda ta negu izarditan blai
hantxe jarduten naiz bero
eta gaitzerdi egindakoa
ondo ordaindu ezkerro. (b)

IÑIGO OLAETXEA

*Ilargira begira
zer ikusten dezu?*

Beti berdina dago
ze iruditzen zaizu?
Batzutan borobila
izaten da aizu,
gauero begiratzen
nago itsu-itsu.

*Osasungarria da
lana egitea*

osasungarrigoa
horixe uztea
nahiz ta Arano dagon
izerdiz betea
egunero daduka
horretan nekea.

Hitza: HITZA.

Nahiz ta batzutan baxua izan
bestetan berriz ozena
nahiz ta batzutan okerra izan
bestetan berriz zuzena.
Elkarrartean hitzegiteak
merezi ohi denez pena
hori gauza nabarmena (b)
Gure arteko elkar lanean
ezin bestekoa dena
batzuk badute haundia baina
beste ukatzen zaiena. (b)

ESTITXU FERNÁNDEZ

*Bideak egin eta
mendiak hondatu*

ingurugiro dena
ederki aldatu
autobidearekin
hori zen gertatu
horrekin behar dugu
len bai len bukatu.

*Udaberria hotza
ta odola bero*

gaztea burutikan
dagoenez ero
odola bero daukat
hori dut espero
jakin behar zenuke
hori honezkero.

Hitza: HERIOTZA.

Heriotzari aurre egiteko
igual ez daukat indarririk
baina ez dugu bizi honetan
errezatzeko beharrik.
Egun batean eman behar zaio
bizitza honi agurrik
ez dut egingo negarrik (b)
aitortuko dut, heriotzari
badiodala beldurrik
baina badakit bizi honetan
pauso bat dela bakarrik. (b)

MIKEL ALTZUART

*Ba al duzu hemengo
hauteskunden berri?*

Egunkariak digu
orritan ekarri.
Nahiz ta hainbeste dudan
hortan irakurri
barkatu, ez zait egiten
bate ulergarri.

*Sermoi luzeegiak
aspergarri dira*

hemen jarriko naiz gaur
apeizei begira
gaur hiru bataiokin
ongi dago, tira,
baina sermoiarekin
aspergarri dira.

Hitza: URA.

Paisaje berde ikusgarria
basoak duen orbela
aspaldi hontan kexuka gaude
lehortea dabilela
eguraldia ere aipatuz
ia egunero honela
hitz aspertuen kazpela
beti homelaxe dela (b)
gaur ura ez zaitut askorik edan
aitortzen dut ba berela
baina hobe nun hori badakit
ezin nezake bestela. (b)

EKINTZA LANDA

*Geroa nola dator,
beltz ala zuna?*

datorrela behintzat da
gauza nabaria
beltza edo zuria
zalantza ugaria
zuri dezagun beraz,
bakoitzak guria.

*Zer daukazu buruan
memento honetan?*

Saia beharko naizela
datorren urtetan
geldituko naizela
final erdietan
Elizondora noa
ta kotxez benetan.

Hitza: POLITIKA.

Herri honetan egin genuen
aspaldi denek kabia
momentu latzak pasa ditugu
bota dugu izerdia
politika eza denentzat bada
ere gauza nabaria
bada arazo haundia
hautsita bihotz erdia (b)
zoritarrean ematen zaio
garrantzia ugaria
herri honetan hori delako
eguneroko ogia. (b)

JESUS ARZALLUS

*Hego Euskal Herrian
bi lehendakari*

joko horretan sarri
baitira han ari
baina arazo latz bat
ikusten dut garbi
botoa eman behar
euskera ez dakinari.

*Zer moduz egin duzu
bazkari legea?*

Berehala kontatu
nahi dizut nerea
nahiz ta ongi betea
daukadan barnea
dijestioa ezin
dut egin ordea.

Hitza: ETXEA.

Etixerik eza Euskal Herrian
abertzale askon mina
ta horren bila dabil aspaldi
bihotz dutenen mitina
babes goxo bat eta aterbe
bila gure alegina
ai zer eginkizun fina (b)
bide horretan izan dedila
gure bidearen griña
gure etxea nahi dugulako
Euskadi bat bategina. (b)

OFIZIOKA, HAMARREKO TXIKIAN. JOXEMA LEITZA ETA XABIER LEGARRETA.

Zu, Joxema, frailea zara eta zu, Xabier, jostuna. Joxema gaur Xabierrengana joan da sotana berri bat egin diezaion. Hiruna bertso hamarreko txikian.

J. Leitza: Sotana ez dut jazten
usu edo sarri
ta tratuai eragin
beharko elkarri
nik jostunarengana
hori dut ekarri
sotana izan dadin
gaur erabilgarri
botoiak beharrean
kremailera jarri. (b)

X. Legarreta: Zein etorriko eta
fraile bat, ai ama!
Orain edukiko det
luzerako fama
kremailera ipintzen
ekarri dit lana
nolaz etorri zeran
jostunarengana
zein koloretakoa
nahi dezu sotana? (b)

J. Leitza: Gorri jarri ninteke
hori aditzian
sotana gutxi dago
apaizan etxian
nonbait zu ez zabilta
kolore eskasian
astegunez jazteko
zuri ta fusian
ta beltza jantziko dut
meza nagusian. (b)

X. Legarreta: Kristauek ez dizue
egingo ez burla
ni ez bainaiz jostun bat
txarra ta ahula
nere kategoria
ezin disimula
nahiz nik sotana egin
ona ta mardula
gero ez esan jaunak
ordainduko dula. (b)

J. Leitza: Nahiz asko bizi diren
elizan kontura
aberats izateko
ez sortu mundura
sandaliekin nabil
hauxe da freskura
eta beti bizi naiz
txiroen modura
ta artzapezpikuai
bidali faktura. (b)

X. Legarreta: Egin egingo dizut
neu naiz testigua
baina lehenengo jarri
aurrean dirua.
Nahi badezu txikia
edo haundigua
txulo jarri behar det
fraile umildua
nunbait gastatu behar
limosnan bildua. (b)

IÑIGO OLAETXEA ETA BITTOR ELIZAGOIEN

Herri bereko bi gazte zarete. Zu, Iñigo, herriko bestak antolatzen buru belarri aritzen zara urte osoan. Zu, Bittor, herriko bestak direnean ondoko herrikoetara joan ohi zara. Hiruna bertso hamarreko txikian.

I Olaetxea: Herrikoen artean
hau da panorama
zu ikusita ia
beti dugu drama
ez da kexu agertzen
ez aita ez ama
baina zuk ordea ondoko
herrirako plana
hola ordaintzen al duzu
herrikoen lana? (b)

B. Elizagoien: Besten antolakuntzan
sartuta zeharo
baina antolakuntza
dihoa arraro
rok taldeak ekarri
ta dena akabo
auzoko herriraino
joatea nahiago
zuen zaraterekin
leporaino nago. (b)

Olaetxea: Beraz ibiltzen zara
batetik bestera
utz nazazu ba orain
zerbait esatera
nahiz ta ez den ez ona
zuk duzun aukera
herri hontatik zoaz
ondokora, bera
isiltasuna baino
zarata hobe da. (b)

B. Elizagoien: Musika gogorrakin
haibeste eraso
ia bururik ere
ezin baitut jaso
bestatan pasa leike
eta gozo-gozo
hurrengo urterako
Peña ta Lizaso
ordun geldituko naiz
herrian akaso. (b)

I Olaetxea: Peña eta Lizason
alde hor jo ta su
herri hoietan hoiek
hainbat enbarazu
beraz aukeraketa
hortxe zuk daukazu
lan eskerga handian
aurkako zara zu
hurrengo urtean zuk
antola itzazu. (b)

B. Elizagoien: Antolakuntza hartu
beharko dut bela
herrian ezin segi
aurrera horrela
jarrikit giro ona
ez giro motela
aizkora ta pelota
bertsoen epela
bestak badakit ta nik
denenak direla. (b)

MIKEL ALTZUART ETA EKINTZA LANDA:

Zu, Mikel, mutila zara eta zu, Ekintza, neska. Elkar ezagutu berriak zarete zuk, Mikel, bertsolaria zarela esan diozu Ekintzari eta hori entzutean Ekintzak aurpegi txarra jarri dizu. Hiruna bertso hamarreko txikian.

M. Altzuart: Neska honengana egin dut
nik kolpetik tiro (b)
beregana joan naiz
asuro-astiro
bertsoa ere kantatu
diot nik biziro
baina antza dugunez
ez da hemen giro
hanka sartzea beraz,
egin dut berriro. (b)

E. Landa: Bertsoa bota eta
egin du bekatu (b)
holakorik inori
nik ezin barkatu
zuk ongi esan duzu
berriz hanka sartu
nolakoak zareten
ezin dut ahaztu
gutxi kantatu eta
ugari kobratu. (b)

M. Altzuart: Nere afana laister
hemen da bukatu (b)
nere burua ez dakit
nik nola kokatu.
Asko kobratze horrek
burua nekatu
neri holakoa ere
gaur baizat tokatu
gaurkoan zure zarta
bakarri (d)ut kobratu. (b)

E. Landa: Behin hasi ezker ere
berotu motorrak (b)
gezurtiak zarete
ta buru gogorrek
ustez zuen bertsoak
duela altxorrek
leku guztitan daude
zuentzako zorrak
ta hori gutxi balitz
gainera mozkorrek. (b)

M. Altzuart: Gaurko neska hauekin
ibili kontuan (b)
ez naiz berriz hasiko
hola espantuan
gaur jai izango baitut
Ekintzan onduan
hobe izango dugu
Estitxuna juan
ni bezain buru gogorrik
ez dago munduan. (b)

E. Landa: Nahiz ez naizen izango
zuretzako kalte (b)
jada egin dizkizut
bizpahiru atake
agurretan gehienak
berdinak zarete
herri denak zuritzen
aurrera jotake
eskerrikasko eta
hurrengo bat arte. (b)

JESUS ARZALLUS ETA ESTITXU FERNÁNDEZ

Jesus, zu, gaur joan zara hamaikagarren aldiz autoa gidatzeko karneta erdiesteko esamina praktikoa egitera, Estitxu inspektorea zara esamina juzgatu behar duena eta autoaren atzeko aulkian doa eserita. Hiruna bertso hamarreko txikian.

J. Arzallus: Inspektoreak hartu
nahi nau oso estu
nere karnetan bai-a
baita bere esku
hamaika amets eder
didazu zapuztu
gaurkoz ere ezetza
baidaukat hain justu
honek nere kontura
nahi du aberastu. (b)

E. Fernandez: Aberasteko hori
egin dit abisu
nere ustez bera dago
aspalditik itsu
primera sartu eta
kontentu zaude zu
baina kotxea ez da
gaur mugitzen aizu,
lanbiziko motorra
piztu behar duzu. (b)

J. Arzallus: Hau arrazoirik gabe
hasi zait kolpeka
ni horretxek jarri nau
erabat erreta
eskuan hamar paper
gainera maleta
baina nun dabilkizu
zuk zure arreta
jadanikan terzeran (b)
sartua dut eta. (b)

E. Fernandez: Txukundu du ilea
txukundu arropa
terzera jarri eta
gaur nerekin topa
baina kotxeakin du
kristoren borroka
ez nuke nahi gaurkoan
zure lana oztopa
baina ez zazu berriro (b)
zuhaitzen bat bota. (b)

J. Arzallus: Ezezkoa jaso
nahiz azkenengoan
eta nik egun hura
dadukat gogoan
beti hortxe zaude zu
atzeko txokoan
karnetikan ez badet
jasotzen gaurkoan
nik zedorri botako (b)
zaitut hurrengoan. (b)

E. Fernandez: Hurrengoan egingo du
hori beban bada
horregatikan ezin
egin guk algara
nik bihotzean daukat
kristoren ikara
karneta emango dizut
zin dagizut hara
sano iristen banaiz (b)
autoeskolara. (b)

KARTZELEKO GAIA.

**Bi lan egiteko. Lehenengoa, azken aurreko puntuarekin bertsoa hamarreko nagusian osatzeko:
... hori gertatu izan ez balitz orain
ez nintzen hemen izango...**

Bigarregoa, gaia: diruz betetako maleta bat aurkitu duzu kalean, bi aldiz pentsatu gabe jabeari eraman diozu. Ekintza horrek ordea, zer pentsatu ugari sortarazi dizu. Bi bertso doinu eta neurri librean.

BITTOR ELIZAGOIEN:

Txapelketaren joko guztian
bertso saio baten dago
hutsen bat edo beste ein ezker
guzti-guztia akabo
nahiz eta Leitzan bi poto egin
izan nuen suerte frango
hori gertatu ez balitz orain
ez nintzen hemen izango
ta Elizondon egonen banintz
askosaz ere nahiago. (b)

GAIA: Maleta haundi bat aurkitu nuen
dena diruaz dario
bere jabeai itzuli nion
gainera oso serio
buruan hainbat buelta eman ditut
hori delakoz medio
egindakoa egina dago
eta zer erremedio
kontzientzia behintzat lasai dut
ta ez du gutxi babo. (b)

Maleta hartu jabeangana
joan nintzaion korrikan
eskuzabalez hartu ninduen
parrezka eta pozikan
egindakoaz harro nago ni
ez dut batere lotsikan
nahiz eta pobre inoiz ez dut nahi
lagun urkoan sosikan
nere bizian ez dut izanen
eginaren damurikan. (b)

JOXEMA LEITZA:

Txapelketakin izaten dira
Nafarroan hainbat txango
nekeak ere sortzen zaizkigu
hala behar dut esango
antolatzen ta kantatzen nabil
ezetza banu emango;
hori gertatu ez balitz orain
ez nintzen hemen izango
baina daukagun guztiarekin
aurrera egin beharra dago.

GAIA: Maleta hori aurkitzerikan
inola ez nuen uste
ireki eta diruz beteta
ez nengon batere triste
baina diruak ez du egiten
gizakia oso aske
hiru bat milioi zeuden barruan
eta norbait bere eske
seguru asko izango zuen
etxean beste hainbeste.

Mundu honetan aurki daiteke
hainbeste faltsu ta alperrik
diru gehiegi edukitzeko
ez daukatenak beldurrik
nahiz guretzako pezta bat ere
munduan ez dagon txarrik
nahiz eta hori hartu nezaken
neronentzako bakarrik
ez dut izango nerea ez den
diru guztien beharrik.

XABIER LEGARRETA

Urtero-urtero txapelketakin
gabiltz hemengo ta hango
batzutan gaizki moldatzen gera
beste batzuetan ondo
Lizarran tinko jarri nituen
lurrari helduta bi zango
hori horrela gertatu ez balitz orain
ez nintzen hemen izango
baina bildurra badut aurrera
ez ore naizen joango. (b)

GAIA: Hau aurkituta trantze bikainik
ezin inola igaro
pentsatzen nago hartu ta hurrun
ez ote naizen juango
baina bestetik hori eginda
ez naiz geldituko ondo
arinak ditut bi zango
umore txarrez bi trago (b)
neureganatu edota utzi
zalantzan jarrita nago
baina diruak ez nau sekula
kartzelara eramango. (b)

Bilete berde, hoién itxurak
ez dit burua galduko
bihotz oneko izan naizela
denak zerate lekuko.
Nahikoa egin ta etxera noa
aspertuta nago gaurko,
ez diot egin nahi uko
baina, ez naiz umilduko (b)
munduan ez da seguruenik
hamaika nere moduko
baina, len igual lapurtua da
berriz ez dut lapurtuko. (b)

IÑIGO OLAETXEA:

Bortzietan bertso eskola bat
sortzea ez zen arraro
geroztik ona ikasi asmoz
bertan gabilitza oparo
lendabiziko bi irten ziren,
gerora oraindik gehiago,
hori gertatu ez balitz orain
ez nintzen hemen izango
hortaz Bittor ta Manolori ere
eskertu beharrean nago (b).

GAIA: Milioi mordera duen maleta
topatu dut hemen bela
nagusiarri itzuli diot
zer egingo nun bertzela?
dena den orain daukat barruan
pentsamentu hain krudela,
errango dut ha horrela, (b)
pentsamendutan galdua nago
garai batean bezala
berez daukadan hain bihotz ona,
bezain tontoa naizela (b).

Milioiz beterik zegoen maleta
hori neure baldintzan,
nahiz ta agian damutu naizen
nik egindako ekintzan
hamaika arte pasa ondoren
diru apurren peskisan
nago pobreen gerizan (b)
baina halare ematea nuen
erabaki onen gisan
epaimaiari eman banio
finalan egongo nintzan (b).

ESTITXU FERNÁNDEZ:

Bertsolaritzan txikitatikan
ni sartu nintzen zeharo,
ta erruduna nor izango zen
gaurkoz nahiko ziur nago
Manolorekin ibili nintzen,
gero ta hobekiago
hori gertatu ez balitz orain
ez nintzen hemen izango
horregatikan Arozenari
eskertu beharra dago (b).

GAIA: Hori egin da buruarekin
oraintxe hasi naiz teman
seguru aski hori ez nuen
berriz egingo aukeran,
maleta hartu pentsatu gabe
nagusiari eraman
baina burua oraintxe daukat
bueltak emateko eran,
Hori egin ta ez didalako
berak saririkan eman (b).

Ez nun espero nagusi hori
izatea holakoa,
maleta hartu ta eman diot
baina aurkitu oztopoa,
ez dit deusere eman neretzat
arraroa da gaurkoa,
barruan nuen sari txiki bat
gaur jasotzeko gogoa,
baina munduan jendea ez da ni
bezain bihotz onekoa.(b)

MIKEL ALTZUART:

Joan den urteko txapelketakin
banituen kezka frango
parte hartzeko erran zidaten
berdin hemengo ta hango
galdetu nion nere buruai
ez al naiz bada joango?
Hori gertatu ez balitz orain
ez nintzen hemen izango
zer emanen dut egindakoaz
ni damututa ez nago. (b)

GAIA: Maleta batek erakutsi nau
merezi du ikastea
halako pila dena batean
ez da errex ikustea
baina alferrik, ez du merezi,
orain kontaktzen hastea
lehen-lehenik egin behar nuen
nagusiai itzultzea.

Nahiz ta pentsatu, erdi damutu
nik ezin egin bestela
holako diru pilak bizia
soluziona dezakela
baina itzulketa egin nuen ta
ezin zen izan bestela
amak ere len ematen zuen
zintzoegia nintzela.

EKINTZA LANDA:

Lizarran nuen kanporaketa
egin zitzaidan arraro
kantatu eta egia esan
leku hori dut nahiago.
Ondo kantatu bertsoak ederki
eta gustora zeharo
hori gertatu ez balitz orain
ez nintzen hemen izango
ta orain hemen geldituko naiz
ni ez noa aurrerago. (b)

GAIA: Maleta aurkitu ta jabeari
eraman nahi nion bela
nere buruak momentu hortan
agindu zidan bezela
erabakia ez zen kaskarra
ez zen batere txepela
gauzak direnez horrela
zer egin behar nuen bestela? (b)
Jakin zazue nere semeek
hori jakingo dutela
ta esan dezaten bere amatxo
pertsone txintxo zela. (b)

Bueltatu ez banu atsekabea
izango nuen gainean
bizitza osoko zama gogorra
sentitu ere barreanean
nerea ez zen ta zertarako
behar nuen azkenean
nahiz ta nabilen lanean
gauzak txartzen direnean (b)
orduak noski oroituko naiz
nere barru aleginean
maleta faltan bota beharko
jatekoa falta denean. (b)

JESUS ARZALLUS:

Bertsolaritza ta entzulea
arras loturikan dago
horrela dugu gaur egun eta
horrelaxe zen lenago
zuek pozikan aurrean eta
gu hemen erdi esklabo
hori gertatu ez balitz orain
ez nintzen hemen izango
mila esker entzule guztiori (b)
gaur nola zeraten frango. (b)

GAIA: Suerte horrek txoraturikan
jarria dit gaur barnea
nahiz ta diruan galdu samarra
izan dudan nik fedea
aurrean hori ustekabean
gertatua da ordea
pentsatua dut nik jabeari
eskutara ematea
zer zoritxarra, bankero bat da
maleta horren jabea. (b)

Bere maleta eskuratzean
haren poza ta algara
beste zerbaite egin banuen
hobeko zen behar hada
orain ez daukat nere barnean
haseran nuen patxara
ongi pentsatuz nik zer egin nahi
nuen esango dut hara,
nahaigo nuen eramatea
gosez dagon Afrikara. (b)

AZKEN AGURRA.

Bittor Elizagoien:

Besarkada bat entzule maite
nere bihotz-bihotzetik
eskerrik asko zuek jotako
txalo goxo hoiengatik
epaimaiaren kondena ere
etorriko da atzetik
zail izango da Elizondora
joatea ate zabaletik
baina gaur behintzat pasatuko naiz
Elizondoko herritik. (b)

Joxema Leitza:

Bukatu da Zuraiden
gaurko azterketa
bakoitzak ezer ez du
barruan gordeta,
edoertako nago
zalantzaz beteta
indar guztiak hemen
utzi ditut eta.

Xabier Legarreta:

Agindu dena kantatu degu
lasai daukagu barrena
erdi gezurrak izan duela
hori da gauzik txarrena.
Amets haundirik egin ezean
ez nator huna hurrena
abisatzen det entzulegoa
diruz larri nabilena
nahiago nuke egia balitz
maleta alu horrena.

Iñigo Olaetxea:

Lendabiziko alkoholiko ta
gero orden tontoa
egia erran, bietatikan
batere ez dut gustokoa.
Baldin da behingoz jokutzen badut
gerora finalekoa
igual gauean bihurtuko naiz
egizko alkoholiko. (b)

Estitxu Fernandez:

Txapelketaren aurrean ez naiz
sekula egon irriparrez
zenbat sufritu dudan gaurkoan
aipatu nahi nuke aurrez
Manolok sartu ninduen hontan
hori erran dezaket errez
baina une hontan ez daukat argi
eskerrak eman edo ez. (b)

Mikel Altzuart:

Nahiz ta hemen ibili
hainbat doinu ta aire
Ekintzak bidali nau
popatikan aire!
baina Elizondon berriz
egongo naiz ere
agur entzule egonkor
ta aio Zuraide. (b)

Ekintza Landa:

Aita ni hemen ikusi eta
badakit pozten zarela
baina ez dut egin behar bezela
merezi zendun papela
ez al diozu goizean piztu
San Antoniori kandela?
Esan zenidan gaiak zein ziren
enteratuko zinela,
baina halare nik esan nizun
alperrik izango zeta. (b)

Jesus Arzallus:

Nahi eta ezin pasatua dut
benetan estu ta grabe
zazpi terditan egina naiz gaur
patxara ederraren jabe
bukatu da ta bukatu da hau
eta egin behar dut aide
mila esker entzule guztiori
hurrena arte Zuraide.

Bittor Elizagoien irabazle izateagatik Zuraideko auzapezak eta Kontseilu Jeneralak emango dio kopa.

Bittor Elizagoien:

Lendabiziko egin nahi nuke
berai hemendikan dei
nahiz ta saiatu topatu zuten
bidean hainbeste hodei.
Kopa eder hau orain badakit
eskeini eta nik norei
txapelketa hontan parte hartu ta
biden geratu direnei. (b)

FINALA
ELIZONDO, 1998ko Apirilaren 5a

AGURRAK

- Xabier Silveira:** Bekainetaraino dauka
tituloa nere agurrak
bekainetaraino bait nau
poto txar baten beldurrak
bekainetaraino ere,
txapel eta garaikurrak
hortaz bekainetaraino,
bertsoaren iruzurrak
bekainetaraino noski
jaun Ansuategi, txakurrak
guzti honekin mozteko
ahoa dauzkat aixturak
bukatu dira ñoñadak,
bukatu dira yogurrak,
ea zenbateko sua (b)
pizten dun gure egurrak (b).
- Jesus Arzallus:** Arratsaldeon lehendabiziko
bestela nondikan ekin,
ea saioak ematen digun
amestu haina etekin
nahiz ta tema ez uka
leia zerbait ahaztuta
saiatu behar dugu behin,
bertsoen gosez etorritako
inor aspertu ez dedin. (b)
- Manolo Arozena:** Gaur ni omen naiz zaharrena,
bainan pozik dut barrena
bertsoen alde lehen eta orain,
eman nahi dut dena
txapela nahi dut aurrena,
ta saio on bat hurrena,
Manolorentzat Manolo baita (b)
lagunik onena. (b)
- Estitxu Arozena:** Euskal Herrian hiru lau gauza
badaude egun bateko
manifa, kantu eta pilota
gehiegi nere usteko,
baina hau da giroa,
ze nolako gogoia,
dudan ongi kantatzeko
arrazoi on bat izan nahi baitut
Bilbora ez joana izateko. (b)

Xabier Legarreta:

Bost buru daude gure artean
txapela probatuak lehen:
Manolo, Bittor, Estitxu, Jesus
eta Silveira ondoren.
Nigatik behintzat irabaz dezan
aritzen denak ondoen,
aurten gainera bigarren aldiz
batek jaztekoa omen
pronostikoak haustera nator
nahiz ta zaila izango den. (b)

Bittor Elizagoien

Faboritorik ez dago inor,
hori daukagu nabarmen,
txapela ez da inorendako
ere erraza izanen,
ni bezalaxe txapel goxean
zazpi lagun daude hemen,
bainan finala jokutzen denez
aurten zuzen Baztanen,
bazzandar baten buruan ere (b)
ez du hain gaizki emanen (b).

Estitxu Fernandez:

Bortziriko bertso eskolan,
seikote bat eraikia
bertako lau gazteenok
badugu gure tokia.
Lesakarrontzat baitago
finala aurten irekia,
baina gu hurona ezta
izan meritu guztia.
Norbaitek errealitate
bihurtu du utopia,
ordainik gabe eskainiz
laguntza eta astia,
Bittor ta Manolo dira
guztia borren zergaitia
hau izan bedi zuentzat
nere omenaldi txikia. (b)

Iñigo Olaetxea

Elizondoko frontoian ez da
partidu onik egunero,
gaur gatoz zortzi pilotari
ta zuek denak botilero.
Bertsoak dira geure pilotak
epaileak frontisa edo
mundu hau nola sartua dagon
enpresa oron bezero,
Lesakatikan berri bat dator
adi egon zaitezte gero,
apustuak daude bero
bertzerik ez zen espero,
segundatikan etorri arren
Olaetxea terzero
partidu ona egin dezake
piskat lasaitu ezkerro.

OFIZIOKA ZORTZIKO HAUNDIAN HIRUNA BERTSO.

XABIER SILUEIRA - JESUS ARZALLUS.

Zuk Xabier baduzu seme txiki bat eta orain oporretara joateko Jesus, zure aitari, eskatu diozu seme txikia zainduko ote dizun, zu , kanpoan zauden bitartean.

Xabier Silveira: Gazte samarra izanik ere,
semea bota lurrera
aitak auniztan erran baitzidan
ausar zaitez izatera,
erraten zidan zuri hainbertze
maitatuko dut gainera,
oraintxe duzu maitasun hori (b)
adierazteko aukera. (b)

Jesus Arzallus: Mallorca aldean jarria dauka
nere semeak begia,
nik eman nion maitasuna ta
eguneroko ogia
seme ta iloba hazi beharra
ez al degu gehiegia?
Ez pentsa gero nere etxea
duzunik haurtzandegia (b).

Xabier Silveira : Zure etxea haurtzaindegia
ez liteke behar bada,
etxe horretan hamaika seme
nahiz hezi dituzun jada.
Nere andrean ondoan joan
nahi nuke nik Mallorkara.
Haurra ondoan ikusi eta
gazte sentituko zara (b).

Jesus Arzallus: Gazte sentitzen horrek ni ere
nahiz ta ninduke poztuko,
borondatean faltarik ez dut
kolpetikan agertuko,
bainan hala ere nik arrazoiez
egin nahi nizuke uko
zu aitonakin utzita ez zinan
horren beste lorituko (b).

Xabier Silveira: Semea hala izanagatik
aita ere a ze prenda!
hor uzten ditu biberioak ta
bere papilan zerrenda
aita mesedez enroila zaitez
ta hartu semea, benga!
bideojokua martxan jarrita
geldik geldi egonen da (b).

Jesus Arzallus: Modu hontako mesedeak zu
eskaturikan askotan,
azkenerako baietza eman
nahi nizuke gaurko hontan,
bideojokua ikusiz igual
egongo ornen da lotan,
eta zu handik etortzerako
ikasiko du bertsotan (b).

MANOLO AROZENA - ESTITXU AROZENA.

Gaur, hemengo saio honetarako modu diferentean prestatu zareten bi bertsolari zarete. Manolo, Elizondoko ostatuetan eta gero Bordatxo dantzalekuan ibili unen bart. Estitxu ordea, etxean lasai afaldu eta gau erdia baino lehen goatzean zegoen.

- M. Arozena:** Pentsatu nuen Elizondora
atzo gaez hurbiltzea.
Nere triparen soinu galantek
nola hala ixiltzea,
gauza ona da lagunarekin
hizketan fin aritzea,
lorik egiten ez den gau hortan
pixkat entretenitzea.(b)
- E. Arozena:** Garrantzi gutti du zuretzako
finalaren ohoreak.
Alde ederreko goxotasuna
eskeini zidan oheak.
Eta zu dantzan ibili zinen,
hartuaz Whisky dobleak,
beraz zuk atzo bota zenitun
gaur baino bertso hobeak. (b)
- M. Arozena:** Batzuentzako lo egitea
ona ote dan dirudi.
Zu lotan zeunden ohe xabalen
goxo-goxo, guri-guri,
eta Bordatxon: kaixo, zer moduz?
bizkarrean jaso guri,
aizu zu orain ez zaude lasai
baina ni ere urduri.(b)
- E. Arozena:** Edozein moduz egiten zaie
nerbioei atakea,
horregatikan lota joateko
banuen borondatea.
Larunbateko irten aldia
edozeinentzat kaltea
hobea txapela jantzita gero
Bordatxora joatea.(b)
- M. Arozena:** Txapelarekin juerga egin leike
horretan neu naiz lekuko
baina ahantzi're egiten zaigu
burua jaso orduko
ez zaitez izan garai bateko
bertsolai zarren moduko,
bart arratsean egin nuena nik
ez baitit inork kenduko.(b)
- E. Arozena:** Zuk emandako aholku pila
beti izan dut gogoan
eta horiek gogoratzeko
aukera dugu gaurkoan.
Zuk nahi baduzu kotxea hartu
eta Bordatxora joan
hurrena soinu gutxigo egin
etxera sartzerakoan.(b)

XABIER LEGARRETA - BITTOR ELIZAGOIEN.

Zu Xabier, Afrikatik hemengo familia batetara ekarri zaituzten ume bat zara eta Bittor, familia horretako adin beretsuko semea da. Bion logelan zaudetela elkarrekin solasean hasi zarete.

X. Legarreta: Zure kolore desberdina det ez al da nahiko nabarmen?
Eta bertara egokitzea bobea dut eta amen.
Euskal Herria berez herri bat iskanbilatsua ornen,
entzutez fama onik ez dauka zer moduz bizi da hemen? (b)

B. Elizagoien: Nahiz eta fama kaxkarra izan, hau ez da herri ustela.
Oso gustora emango dizu faltatzen zaizun epela,
egitan diot eta sinistu egitan ari naizela,
nahiz ta arrazaz desberdin izan nere anaia zarela. (b)

X. Legarreta: Berezkoa ez baina anaitzat hartzen ornen nauzu, hara!
Etxe honetan ez dut egin nahi beste guztieri traba,
Euskal Herriko jendea izatez hain jende gaiztoa bada beltzak ostikoz jotzen dituzten hoietakorik ba al da? (b)

B. Elizagoien: Nahiz ta gogorra joan egoera nahiz beltza bezain iluna, ostikorikan ez da izango lasaitu zaitez laguna.
Guk ezin dugu inola bete zure aitaren hutsuna,
bainan ala ere izango duzu falta duzun maitasuna.(b)

X. Legarreta: Han ere banun maitasun hori denek ninduten begiko.
Hasera baten ez nuen uste zidatenikan utziko.
Han egunero hil ohi diranez hainbat neska ta mutiko.
Agian gaizki bizi ninteke baina gosez ez naiz hilko (b).

B. Elizagoien: Badakit orain gosea hutsa ez dela horren aitzaki,
bainan halare afrikarrentzat badut hainbertze erruki.
Zure aita-amak ekarri hona zuretzat bada egoki,
gure etxean izango da ta haiendako hainbat toki (b).

IÑIGO OLAETXEA - ESTITXU FERNÁNDEZ.

Zu Estitxu, herriko aspaldiko medikua zara eta Iñigo, zure semea Medikuntza karrera bukatu berria duena. Iñigo semeak, herrian bertan bertze kontsultategi bat ireki du, kontsultategi naturista.

E. Fernandez: Koxkortu egin da dudarik gabe oraingoan mutikoa, baina nere ustez ez da normala orain gertatutakoa. Konpetentzia egin behar dit, ta hori ez balitz nahikoa okerrena da zurea ez dela batere zientifikoa.(b)

I.Olaetxea: Mediku baten etxean nintzen, hazia eta hezia. Alor horretan jaso dut beraz, heziketa berezia. Zientifikoa ez dela eta ez nago horren etsia alternatiba eskeintzea ez da sekulan konpetentzia.(b)

E. Fernandez: Konpetentzia deitzen diogu guk horrerri holakotan, ta ez nago batere ados zurekin semea une honetan. Nik aspirinak eskeintzen ditut soilik hogeituroetan, eta zuk berriz belar idorrek hamar mita pezetatan. (b)

I.Olaetxea: Zuk medikuntza betikoa dezu, betiko hoiengisara, baina jadanik pasatua da garai hartako bolada. Nik hamar mita pezeteten truke, hola esan duzu hala, dohainik ere aurki daitezke mendira joaten bazara.(b)

E. Fernandez: Beti koxkaka hor ibiltzen da semea nere atzian, baina ez gara hola ibiliko gu biok aurrerantzian. Belarra horiek mendian daude, gehienak lore artian. Belar horiek nik jartzen ditut gure etxeko lorontzian.(b)

I. Olaetxea: Gure etxeko lorontzi hori belarrez hain da murrizta. Nere kontsultan badago, aizu, izugarritzko eskeintza. Zure semean aurka ordea ze arraiotan zabilta! Gure arteko eztabaida hontan herriak du azken hitza.(b)

OFIZIOKA ZORTZIKO TXIKIAN, HIRUNA BERTSO.

JESUS ARZALLUS - MANOLO AROZENA.

Zu Jesus, oporretara joan zinen emaztearekin Manolo, zure semea, etxean bakarrik utzita. Itzuli zarenean etxera sartu, hozkailua ireki eta sardin lata bat bertzerik ez duzu aurkitu.

J. Arzallus: Oso gozoak dira
holako uneak.
Zer poz oporretara
urruti joateak.
Semea gosez hilko,
zion emazteak,
bainan apetitu ona
daduka semeak.(b)

M. Arozena: Hemen zer utzi zendun
ongi nun apunta.
Egitan lan haundirik,
horretan ez nun ta.
Bakarrik eta gosez
zuek haruntz junta,
lau arraultza besterik
ez zen gelditu ta.(b)

J. Arzallus: Arraultzak bazintuen
oilaskoa ere bai.
Zer jana bazenduen
ta gu geunden lasai,
ez zara egon inola
gu etortzeko jai,
semearen urdaila
ez da egon gure zai.(b)

M Arozena: Urdaila ongi daukat
nahiz aukeran hutsa.
Hozkailuan zegoen
bizi nahien funtsa.
Egun bitan jan nituen
zeuden bi arraultza,
eta kartera ere
utzi zendun hutsa.(b)

J. Arzallus: Oporreta joatea
ez da ez kaltean.
Hara joan ginen lasai
ibili ustean.
Berrogei kilo unen
gu haruntz joatean,
bost kilo gizendu da (b)
hau aste batean.(b)

M. Arozena: Benidormen zeukaten
oporrekin zita,
senar-emazteak han
egoera polita.
Orain despistatu egin da
ni hemen ikusita.
Zoaz okulistangana(b)
txorradak utzita.(b)

ESTITXU AROZENA - XABIER SILVEIRA.

Haxe da zuentzako gaia. Bolada honetan inkestatzaile franko dabilta etxez etxe. Estitxu, etxean zaudela Xabierrek ere zure atea jo du, hurrengo hauteskundeei buruz zer iritzi duzun jakin nahian galdera batzuk egiteko. Hiruna bertso zortziko txikian.

E. Arozena: Nere etxeko atea
jo didanez talka.
Ireki beharko dut,
nahiz ta deus ez falta.
Joan zaitez hamendik
paperak botata!
Hauteskunden botua
sekretua da ta (b).

X. Silveira: Nahiz ta hau ez den lanik
onena behar bada.
Inkesta egitera
heldu Lesakara.
Baina haizea hartzera
bidali nau, hara!
hain borde jartzeko
Hatxebekoa da (b).

E. Arozena: Hasieran pentsatu
egitea kasu,
baina oraingo honetan
pasatu zara zu.
Inkestak egitea
alferrik da, aizu!
erantzun baino lehen (b)
asmatzen baduzu (b).

X. Silveira: Mingainean pozoina
ta sua barrenin.
jo, ze nolako bronka!
eman didan aistin.
Bere burua salatu
ezin du ekidin.
Nongoa izango tara ba
itxura horrekin! (b).

E. Arozena: Atean dago eta
ez nago gustora.
Honek ez du eskeintzen
inoren mejora,
eta gure herrian
joateko inora
emaitzak aztertzea
hobe izango da (b).

X.Silveira: Hau bertsolaria da
diot nereko,
epai mahaiak ez dio
esaten utziko.
Bai emaitzak atera
dizagun eta kitto,
nahiz ta gero ez dittun
inork sinetsiko (b).

BITTOR ELIZAGOIEN - ESTITXU FERNÁNDEZ.

Zu Bittor, telebistan azaltzen zaren pertsona ospetsua zara, eta Bertizko parkera etorri zara zure maitalearekin. Halako batean konturatu zara, Estitxu, argazkia ateratzen ari zaizuela.

B. Elizagoien: Famosoak gara ta
dirua nagusi.
Hala ere badugu
nahiko desgrazi,
herritik joan arren
guzien ihesi,
kanpora joanda ere
lasai ezin bizi (b).

E. Fernandez: Bizi pribatuakin
mantendu oreka,
bere maitaleari
jarriaz arreta,
momeo eder eman
pasioz beteta,
horrek askoz gehiago
salduko du eta (b).

B. Elizagoien: Nere atzetik zatoz
ta trastoiz beterik.
Hau ikusi eta ni
jartzen naiz tristerik.
Formal gabiltzenikan
ez izan usterik,
Isabel Preisler ez da
lige bat besterik (b).

E. Fernandez: Isabel Preislerrekin
etorri zara zu,
dudarik gabe jeta
haundia daukazu.
Morrena emanaz
gaur ni ez naiz kexu,
ta nahi badezu galtzak
jautsi dizakezu (b).

B. Elizagoien: Nahiz ta muxu bat eman
berai gozo gozo,
hortaraino ez naiz ni
iristen akaso.
Bertizendako ez da
izango fracaso,
Baldanoi esker Bertiz
egin da famoso (b).

E. Fernandez: Muxuak eman eta
lurrean exeri,
ni beraien atzetik
segi eta segi.
Argazkia egitea
tokatu zait neri,
denak salduko'izkiot(b)
gero Boyerreri (b).

IÑIGO OLAETXEA - XABIER LEGARRETA.

Iñigo, nerabe koxkor bat zera eta eskolan sexuari buruzko idazlan bat egin dezazun eskatu dizute. Xabier zure aitarengana joan zara laguntza eske. Hiruna bertso zortziko txikian.

I. Olaetxea: Bat erlijioa ta
gero errespetoa,
baina azkenik apurtu
da borren betoa.
Zugandik badut aita
asko ikastekoa,
nota erabiltzen da
hanka tartekoa.
larai, larai, laralai
hanka tartekoa.

X. Legarreta: Irakasleak jarri
dizkizu baldintzak,
aitak ez ditu hoiak
hartu behar haintzat.
Nota atera diren
semearen hitzak,
kantontzilo barruan
zuk oraindik behintzat,
larai, larai, laralai
zuk oraindik behintzat.

I. Olaetxea: Barruan gordetzea
nik dudan asmoa,
hori hola ez zenikan
zen zure susmoa.
baina ni galdetzer
oraingoan noa:
zer da erotikoa
eta zer pornoa
larai, larai, laralai
eta zer pornoa.

X. Legarreta: Galdera horri ere
ez diot igarri,
maixu artean bada
makina bat txerri.
Etxera zure maisu
jauna hori ekarri
esplikatu diot
bi gauza hoiak berri
larai, larai, laralai
bi gauza hoiak berri.

I. Olaetxea: Irakasleak hori
badaki bai berdin,
baina galdera batí
berri diot ekin.
Atzo gauean bazen
buila eta muzin,
zer ari zinen zu atzo
nere amarekin?
larai, larai, laralai
nere amarekin?

X. Legarreta: Semeak, galde txarra
egin duk tartean,
seguru aitarentzat
izan da kaltean.
Afarri baten nintzan
ni atzo gauean,
ama zer aritu zen
bien bitartean ?
larai, laya, laralai
bien bitartean?

**BANAN-BANAN BINA PUNTURI ERANTZUN ETA HITZ BAT GAI BEZALA HARTUTA BERTSO BAT OSATU
HITZ HORREK DAKARREN GAIARI BURUZ.**

XABIER SILUEIRA

*Hogei tamabortz ordu
da proposamena
sindikatu batzuek
atera dutena,
ordea hauxe da nik
erran nahi nukena:
asteen hamar ordu
da egin behar dena.*

*Burlatan abiatu
aurten txapelketa
ta Elizondon bukatu
gure txapelketa.
Aurretik egin dut
hainbat ausnarketa,
txapela berriz ere
jantzi nahi dut eta.*

Hitza: SAIA edo PUTREA.

Putreengatik hasiak dira
izugarriak erraka,
animaliak bizi-bizirik
agertu baitira janda.
Ekologistek ordea ezin
dezakete sartu hanka,
ta erraten dure bakarrik dela
gaixo bat duen ezpata
bien bitartean putreak lasai
dabiltz zeruan hegaka.
Sortu duten zalaparta
nabil orain antzita
putreak utziz politikoei
nahi nieke nik kanta,
putrea eta politikoak
gauza berdina dira ta.

JESUS ARZALLUS

*Gaixorik omen dago
oihana Bertizen*
badut gauz hori aixa
ikusteko hainbat sen,
natura ez baitabil
inun ere zuzen,
Baldano eta Preysler
nola hor dabiltzen.

*Mende berria ere
hortxe dago hurbi...*
denboraren aurrean
gauden umil-umil,
baina gure gurpila
itzulika dabil,
Euskal herria inoiz
ere ez dedin hil.

Hitza: HERENTZIA.

Frankoren menden garai batean
izan nintzen ni hezia.
Diktadura huya haur txikientzat
gendun aski berezia,
Euskeraz ere ezin hitz egin
nunahi zegoen hesia,
guk ez gendun merezia (b)
baina hala ere burrukan gabiltz,
eta ez nago etsia
askatasuna izan dedila
gure haurrentzat herentzia.(b)

MANOLO AROZENA

*Lana aurkitzea da
lanik handiena...*
gazteak triste daude
ta hartzen dut pena.
Hori konpondu dadin
in behar da dena,
tristuran erortzea
baidugu txarrena.

*Belateko tunelak
ireki dituzte...*
beraz baztandar asko
orain daude aske.
Baina laurogei tope,
ta ni gehion eske,
dena einta dagonik
ezazula uste.

Hitza: MAHAIA.

Etxe bakoitzak, sukalde orok
dauka mahaiaren beharra.
Ama lanean, heltze tartean
ta jatunak barra-barra.
Eguardi eta arrats guztietan
hori da gure izarra,
ta hutsik bada, famili denak
badu kezka ta marmarra.
Usai txarren bat entzuten bada
mutur beltz, jende lakarra,
hortxe daukagu famili baten
zorion guztian marra.
Sarri hutsikan dagoenean
horixe da zoritxarra.(b)

ESTITXU AROZENA

*Aitzurra museoan
ikusiko dugu...*
nahiz bizirik egon den
lau mende inguru.
Gaur egun ibiltzeak
ez hanka ez buru,
neregatikan bada
hori da seguru.

*Harrokeriarekin
ez da ezer lortzen...*
igual zuk errandako
hori egia zen
Baina hasi behar da
oraingoz gogortzen,
herri honetan ezin
ibili umiltzen.

Hitza: MINGAINA.

Hasieratik nik aitortu dut:
ein nahi dut saio bikaina.
Eta norberak jaso dezala
merezi duen ordaina.
Denok buruan dugun txapela
da gaurko saioan gaina,
nahiko zaila dago baina
saiatzen naiz halajaina (b).
Gorputz atalak dardarka ditut,
sekula ere gaur haina,
pozik nengoke jakingo banu
nola dantzatu mingaina.(b)

XABIER LEGARRETA

*Titanic haundia zen
urpera halaere ...*
ez zirelako jardun
barrukoak trebe.
Barruan aberatsak ,
haina zeuden pobre,
baina haiek urpean

uztea zen hobe.
Telebista aurrean
denbora sobera...
ori izan liteke
guztien kaltera.
Gezurra nagusi da
nahiz baden aukera,
denak sinistatzeko
gai gera gainera.

Hitza: ALTXORRA.

Entzulegoak erakusten du
guk badiogula zorra.
Ustegabeen goratzen gaitu
jarririk hamaika honra,
baina ez dugu orain hartuko
behar ez degun zigorra,
ez al da une gogorra
egin beharreko obra (b).
Denen desio barruan dena
txapela handia horra,
buru gainean jarriko nuker
piso txikiko altxorra.(b)

BITTOR ELIZAGOIEN

Bakearen irudi
ohi dugu usoa
baina borren emaitza
ez da hain gozoa.
Pake hitz ugari ta
gero frakasoa,
pakearen zain dago
Euskadi osoa.

Oraindik ere bada
makina bat sorgin
eta desiatzen dut
hemen egon dadin.
Sorginen alde beti
jokatzen dut arin,
nahiz ta mirari asko
ez diguten egin.

Hitza: DENBORA.

Udaberriko lorea
txuri, gorri ta berdea.
Usai gozoen jabea,
guretzat zer da hobe.
Nahaigo nuke hola loratzen
balitz gure nahigabea.
Erdera hutsez bihurtu zaigu
oraintxe Baztan aldea,
oraindik bada denbora eta
egin nahi nuke galdea:
nahiz ta euskeran aurka daukagun
Iruña aldeko legea,
oraindik garai daukagu eta
jar dezagun adorea,
Baztan euskaldun bihurtu arte

ez dut galduko fedea.

ESTITXU FERNÁNDEZ.

*Ingurunearentzat
gizakia etsai*
hala ere bizi gera
gu denak hain alai.
Kutsadura dakusat
gainera nolana,
horregatikan nago
mirari baten zai.

*Lasterka eginen dut
maratoi erdia*
ea botatzen dudan
nahiko izerdia.
Laguntza beharko dut
gaurkoan ordia,
ea egitaen dudan
Egañana ia.

Hitza: **MOZORROA.**

Espainiatik Euskal Herrira
iritsi da gorrotoa.
Ez da normala dudarik gabe,
gertatzen zaigun gaurkoa.
Telefonoak pintxatzen dabiltz,
horra gure oztopoa,
dena gure arazoa (b).
Mayor Orejak beti egiten du
otso beltzaren orroa,
azkar kenduko diogu horri
ardiaren mozorroa. (b)

IÑIGO OLAETXEA.

*Suitzan ba ornen da
dirua non gorde . . .*
Euskal Herrian bertan
badaukagu ere.
Nahiz eta ni ez nauzun
diru askon jabe,
Suitzako guztiak
neretzako hobe.

*Besta giroarekin
hasi da eguna...*
hori egia da bai
Taberna laguna.
Hementxe umorea
ez dago iluna,
ea hobe dugun
bukatzen duguna.

Hitza: SEXUA.

Ni harrituta utzi nindun hark
ezagutu nun eguna.
Geroztik hona kontu horrekin
nago benetan iluna.
Aspaldikoa utzi bainuen
neronen neska laguna.
Horretan daukat hutsuna . (b)
Elizak berak bereiztu arren
sexua ta maitasuna,
dudarik Babe horixe dugu
denoi gustatzen zaiguna.(b)

OFIZIOKA, «AIZAK HI MUTIL MAINONTZI» EDO BALIOKIDEAN. HIRUNA BERTSO.

XABIER SILUEIRA - MANOLO AROZENA.

Zu Xabier, Itoizko herriko bizilagun bar zara, han egin gogo duten urtegia betez gero herritik alde egin beharko duena. Manolo, Erriberako nekazari bat da, Itoizko oraren zai dagoena.

X. Silveira: Baina posible ote da
kondenatua joatera?
UPNren poltsikoentzat
ona izanen da,
Nere herria urpera,
busti dadin Erribera.
Arrain handia berriro doa
txikia jatera. (b)

M. Arozena: Oraindik zaude bizirik,
eta ez egin kasurik.
Etxe berri bat zuretzat dago
egina jadanik.
Ez egin hiltzeko planik.
Zu itoiztarra izanik,
arrain kontutan ez dut ulertzen
garia nahi dut nik. (b)

X. Silveira: Buruan duzu haizea,
nere herrialde hezea.
Izan liteke zure lehorra
ontzeko bidea,
nahiz horrela den zurea,
ez da erraz ulertzea:
zure ogia lortzeko niri
etxea kentzea. (b)

M. Arozena: Itoiz da leku gorena,
Nafarroan dotorena.
Zu ezkor zaude ta horrek neri
ematen dit pena.
Hau ogi nahi nabarmena,
nafar askok daukatena.
Zurea soilik ez da jokoan
baizik askorena. (b)

X. Silveira: Hamabi urte inguru
hor gabiltza buruz-buru,
nahiz ta bidean hainbertze tranpa
aurkitu ditugu.
Nahiz orain hainbat apuru,
eduki-egon seguru:
solidarioen indarrarekin (b)
geldituko dugu.(b)

M.Arozena: Hori gelditu bai zera!
egin ezazu atzera.
Berrero ere hitz egin dezuz
tontoen antzera.
Kondenatuak galtzera
doaz dena egitera,
eta agian hortxe zuz gosez (b)
laister hilko zera.(b)

JESUS ARZALLUS - ESTITXU AROZENA.

Zuk Jesus, esposatu edo ezkondu egin behar duzula eta Estitxuri, aspaldiko lagunari, gonbidapena eman diozue eskura eta gonbidapen txartelan jartzen du trajez jantzita joan behar dela.

J. Arzallus: Ezazu izan ikara
ta jana lasai tripara.
Gu aspaldiko partez ikusi
hortxe behar hada.
Lagun batez baitut traba
ta mezu bat zuri hara:
porrero antzera ez etortzeko
nere ezkontzara. (b)

E. Arozena: Ezkontzeko planak egin
nere ustez nahiko arin,
baina erabaki duzunez ezker
ezin da ekidin.
"Mesedez etor zaitez fin
traje dotore batekin",
eta gainera joan behar al duz
bost mita durokin? (b)

J. Arzallus: Nere abisuaz ohartu
eta ahal hada onartu,
hortxen gintezke ondo jantzita
gu biak elkartu.
Lotsagabe ez ausartu,
diruakin ez kezkatu,
oraindino behintzat ez baidizut
sentimoik eskatu. (b)

E. Arozena: Ezkontzarako kemena,
lagunak hartu duena:
trajearekin joan nadila
baldintzetan dena;
baina urtetan barrena,
hau nere arroparena:
nere arropetan bakeroa da
eleganteena. (b)

- J. Arzallus:** Tratuan gabiltza larri
neri saltsarik ez jarri,
hor ez baizera zu geldituko
gose ta egarri.
Bakerokin ez etorri,
traje txukun bat ezarri.
Behingoagatik ez nazazula
utzi lotsagarri. (b)
- E. Arozena:** Nahi nuke ongi kunplitu,
zuregana errenditu,
baina oraingon nere lagunak
bi aurpegi ditu.
Nahiz eta ongi aditu,
ezin zaitut konprenditu
hube dut porro batzuk erretzen
etxean gelditu.(b)

XABIER LEGARRETA - ESTITXU FERNÁNDEZ.

Zu Xabier, baserri bat okupatu duen gazte bat zara eta Estitxu, ondoko baserriko nagusia. Estitxu baratzean dagoela, hurbildu eta aitzur bat utziko ote dizun eskatu diozu.

- X. Legarreta:** Okupa sartu naiz bertan ,
nahiz ta honek ez dakin zertan
iruditu zait diola berak:
ez daki ezertan.
Ez zaituz jarri penetan
agintzen dizut benetan,
ikaragarri mutil ona naiz
baratza lanetan. (b)
- E. Fernandez:** Baserrira etorri aurren,
nere ondora ondoren.
Eztabaida bat hasiko dugu
berak ta nik hemen.
Aitzurra desio omen,
kalekumea nabarmen
baina zuk ba ote dakizu ume
patata bat zer den? (b)
- X. Legarreta:** Patata ez dago galdua,
horretan badut gradua.
Baserri hau da okupatua,
eta ez saldua
zera da hain segurua:
guk badaukagu burua
atxurrarekin txukundu nahi det
etxe ingurua. (b)
- E. Fernandez:** Gaurkoan zaigu ausartzen,
aholku bila etorri zen.
Hasi beharko dut bere nahi hori
oraingoz onartzen,
hasi nahi dula baratzen ,
ingurunea edertzen.
Nahiko lan duzu mutiko zure
burua txukuntzen. (b)

X. Legarreta: Pinta txarra dedan arren,
jokatu nahi det nabarmen.
Inor bizi ez zen etxe bat ez dut
nik utziko erren.
Lana egingo det hemen,
sasia moztu ondoren.
Luze baino lehen jakingo dezu (b)
zeinen onak garen. (b)

E.Fernandez: Ni orain nago erreta,
baina berak badu treta:
lorak landatu nahi ditu emanaz
lurraldeari buelta.
zertako jarri arreta?
Zure denbora ta beta,
zure etxeko zaratarekin
hilko dira eta. (b)

BITTOR ELIZAGOIEN - IÑIGO OLAETXEA.

Zuek biok, ohitura desberdinak dituzue. Zu, Bittor, goizero makilatzen tara ispiluaren aintzinean, Iñigok ordea, ez du batere makilairik erabiltzen.

B. Elizagoien: Goizetako irrintzia,
ez dauka bate antzia.
Jeiki eta txukun jartzeko badut
nik pazientzia,
hau da nere iritzia.
Honek badu garrantzia,
lantegi baten beti ona da
baten presentzia. (b)

LOlaetxea: Horra zure abisua
benetan nago izua,
aurpegi hori gorritz pintatuz
ematen du sua.
Agian tara itsua,
edo pertsona gaixua:
makilajea baita pertsonan
itxura faltsua. (b)

B. Elizagoien: Ez zait ongi iruditu!
Badaukat hainbat merituz,
presentzi ona itxura txarrak
ezin du gainditu.
Behar zenuke aditu,
horrela ezin segitu
eta arpegi zikin hoi behintzat
pixka bat garbitu. (b)

I. Olaetxea: Ezin egon ixilkan,
zoaz ondotik utikan!
Nere aurpegia garbia daukat,
hori bakarrikan.
Pentsatua dut birritan,
hobe esanda sarritan:
berez guapoa denak ez dula
borren beharrikan. (b)

B. Elizagoien: Ozen ari da kantatzen,
bere laguna tentatzen,
bainan holako klaserik ez zait
batere gustatzen.
Muturrik ez du garbitzen,
usain zikina botatzen:
guapoa ere zikinak ez du
batere edartzen. (b)

I. Olaetxea: Ez da aitzaki ustela
Hain tara gizon krudela,
ez al dakizu zure aurrean
ederki naizela.
Iraintzen hasi horrela
ta nik erantzuna bela,
kanpoa ere pintatzen duzu
barrua bezela. (b)

**KARTZELEKO GAIA.
BI BERTSO NEURRI ETA DOINU LIBREAN.**

GAIA: Andoni Erburu izeneko 10 urteko mutiko koxkorra zara. Film batean parte hartzeagatik zinemako aktore ospetsu bihurtu dena. Holliwood-en ere izan zara oskar sarian bila. Handik itzuli eta bihar hasi behar duzu berriz ere, ikastolara.

XABIER SILVEIRA.

Nahiz ta batzuek maiz egin burla,
nere karrera doa mardula.
Ameriketan jaten egon naiz
mariskoa ta angula. (b)
Zuzendua dut brujula,
ez nun usteko sekula
hau lortu ahalko nula,
bueltan etorri ta sentitu naiz
tristea eta ahula,
berriz grabatzen hasi beharra
bizitzaren pelikula. (b)

Ez da gehiegi nere ausnarra.
jo ze glamurra!, ze fama txarra!
Uste dut jada, pasa dudala
anonimoaren marra. (b)
Autografok barra-barra
orain sinatu beharra ,
horrek pizten dit sugarra.
Ikastolan maiz aterea naiz
behatzia ta hamarra,
azterketetan ja lortzen dudan
han lortu ez dudan oskarra (b).

JESUS ARZALLUS

Umetatikan nabil aktore,
famatu hoién egarri
eta zerbait balio dudala,
azkar didate igarri.
Ni bezalako umeak hantxe
ez dire ibili sarri,
momentu asko pasatu ditut
urduri edota larri.
Oso famatu egina naiz ni,
nahiz oskarrik ez ekarri.(b)

Oso urruti han ibini da
Euskal Herriko mutila,
baina ez zegoen nere eskuan
oskar hoién marabila.
Nahita ere ezin inola hete
nere amets borobila,
umeak otoi ez ba etorri
autografon bila:
nik nahi dedana da ume normal
azkar bihurtu nadila. (b)

MANOLO AROZENA

Izarren mundu haundi horretan
ni harriturikan nago.
Pelikula ta antzerkitako
lendik banun nahiko gogo.
Hollywooden e haundiekin han
ibilia naiz oparo,
nahiz ta gaztea aspertzen ere
hasia naiz ni zeharo.
Nik gizaki bat izan nahio baitut
aktore baino lehenago.(b)

Kamara aurrean, jende artean
argiak eta ilunak.
Pasatu ditut momentu txarrak
eta momentu txukunak.
Herria faltan ere bota dut
nere urrutiko jardunak.
Bihar ikastolara nihoa,
han egiteko lagunak
ea gogoan muten oraindik
aspaldi utzi nitunak.

ESTITXU AROZENA

Mundo horretan sartzeko behar da
indarra eta kemena.
Jende heldua ugari ilago,
zuzendaria urrena.
Ni hartu eta eraman mute
Ameriketan barrena,
oskarra ez dut jaso baina
ez dut hainbertzeko pena,
nere ikastolan izango bainaiz
mutilik popularrena.(b)

Ez dakit nola baina zabalik
Hollywood-eko atea.
Nere aukerak erakusteko
banuen borondatea,
baina gaztegi jarri didate
aktuatzeke katea
horregatik gero handia
izan daiteke kolpea,
askoz hobe dut hura aztuta
Goenkalera joatea. (b)

XABIER LEGARRETA

Nahiz ta, prestatu, prestatu nintzen,
ni oskar hoiengalako,
mutil koxkoma soilik naiz eta
ez dut balio harako,
baina ideiak garbi dauzkat nik
ez det golpetik lur joko
oskarren kontura bapo
biziko nintzakelako.(b)
Hollywoodraino hegazkinean
nahiz eta joan nintzan guapo,
aurten zorterik ez dut izan ta
ikasten segi beharko (b).

Nahiz aurten ez den ongi atera
filma da nere alorra.
Diru ertzean igari nahi dut,
bilatu nere altxorra,
baina kalean jarri berria naiz
zorterik ez daukat horra.
Hau da jaso den zigorra,
eta ez al da gogorra? (b)
Baina ez dut nahi bete gabe utzi
ikusentzuleen zorra,
hurrengo urtean hautsi behar dut
Titanikan errekorra. (b)

BITTOR ELIZAGOIEN.

Azken aldian famoso egin
ornen mute ni zeharo.
Hollywood-en ere ibilia naiz
nahiz neretzat den amaro.
Berrito bueltan herrira nator
nere bidaia akabo,
baina oso pozik nago. (b)
Ikastolara banao bueltan,
han egon nintzen lenago.
Nere ikasketek nola daukaten
askoz garrantzi gehiago.

Pelikulatan ibilia naiz
aktore on baten gisan
eta gainera grabatu gendun
dena behar zuen gisan.
Berriz bueltan hemen banator
mutil on baten baldintzan,
hau egin behar da bizitzan. (b)
Ospea ta fama ugari
izanagatik eskeintzan,
ikasi gabe sekulan ere
ona ezin bainaiz izan.(b)

ESTITXU FERNÁNDEZ.

Montxo Armendariz entzun orduko
irria aho betean.
Aze urduri nengon orduan,
Hollywood-a joatean.
Pelikula hortan ongi pasa nun
antzerkian, atakean.
Nahiz eta egon naizen ederki
izar handien artean,
aunitzez ere hobe bizi naiz
nere errealitatean. (b)

Errodailetan batzutan nengon
urduri eta erreta.
Une guztian jarri beharra
zuzendariari arreta.
Ez da errexa lan mundu hori,
nahiz ta eduki nahiko treta,
baina badauka gauza bat ona
diot pasioz beteta:
ikastolako umeen artean
famatuena naiz eta. (b)

IÑIGO OLAETXEA.

Diru ugari badaukat jada,
kasik etxe ta kotxea
zinemagintzan eman ondoren
nere karrera luzea.
Txikitatikan izan bainuen
pantailarako gosea
Hollywood-en ia asean (b)
Orain berriro ikastolara
berri betiko klasea,
ez baita inoiz ona izandu
gaztetan fama hartzea. (b)

Txikitatikan aktoretzako
izan dut hamaika dohai.
Pelikularen protagonista
bihurtu naute nola nahi.
Dena den hola, ez dut nik hemen
inolaz ere seitu nahi.
Nahiz ta besteek dioten: bai ! (b)
Irakasle edo andereñoa:
ni hemen ez nago lasai,
Hollywood-eko Oskar handiak
gerora hortxe ditut zai. (b)

Mariano Izetari Bittor Elizagoienek eskeinitako bertsoa.

Baztango seme kuttuna,
xaloa bezain biguna.
Loreak ihintza baina gehiago
maitatzen duguna.
Jaunen artean jauna,
ta jende xumen laguna.
Bi mila urtez gure herriak
goraipatuko zaituna. (b)

NAFARROAKO BERTSO TXAPELKETAKO FINALAREN EMAITZAK:

- 1.- Estitxu Arozena 588 puntu.
- 2.- Xabier Legarreta 562 puntu.
- 3.- Bittor Elizagoen 560,5 puntu.
- 4.- Iñigo Olaetxea 553,5 puntu.
- 5.- Jesus Arzallus 549 puntu
- 6.- Manolo Arozena. 544 puntu.
- 7.- Xabier Silveira 540 puntu.
- 8.- Estitxu Fernandez 538,5 puntu.

AZKEN AGURRAK.

Estitxu Fernandez. Saria Nafarroako Bertsozale Elkarteko lehendakari ordeak, Eugenio Arraizak, eman dio plaka oroigarria.

Ideiak jira ta bira
txarrenak zuen erdira
ongi egin banu sikira
baina halare kontentu nago
egun txar bat da ta tira
txapel beltzari begira
nere nahiak bete dira
Lesakara etorri da.

Xabier Silveira. Eugenio Arraizak eman dio plaka oroigarria.

Nik ere ez dut sinisten baina
erran beharko dut horrela
txapelketara etorri eta
horrela izaten dela.
Zorionak Estitxu
poztu naiz badakizu
baina atzo gauetz bezela
badakit hobe izango nula (b)
Irunera joan banintz. (b)

Manolo Arozena. Eugenio Arraizak eman dio plaka oroigarria.

Ez dek polita izan
hire sesioa. (b)
Baina kantatzea huen
beti desioa.
Lehen alai hintzana
orain serioa
ta erdira jetsi dek
hire balioa
Manolo hartu ezak
jubilazioa. (b)

Jesus Arzallus. Plaka oroigarria Eugenio Arraizak eman dio.

Nik ere sartu beharra daukat
Manoloren bidetikan
bertso berdina bota behar dut
ia bere errepikan
pozik joango gera etxera
txapelketa hontatikan
gazte berririk etortzen bada (b)
zahar hauen atzetikan. (b)

Iñigo Olaetxea. Baztango Udaleko zinegotziak, Remigio Lizasoainek, eman dio plaka oroigarria.

Zeñi eskeini bertso txarrak ta
zeñi onak badakit, tira,
zoritarrez gaur ez daude batzuk
bertso saio hau begira
Iñaki eta Patrizioentzat
beste gutien arira
goizean bertan entzun da ozen:
Presoak Euskal Herrira!
Bertso onikan bota badut gaur
hoiek haientzako dira. (b)

Bittor Elizagoien. "Euskal herriko Bertsozale Elkarteko" lehendakariak, Imanol Lazkanok, emango dio saria.

Imanol Lazkano:

Nafarroako txapelgo honek
badu bere istorioa
zerbaitegatik dio jendeak
holako amodioa
partaide hauen lana nahiz ta den
gogo ta serioa
borroka hontan ahalegintzeak
badu bere balioa
gure gozamen bihurtzen baita
hoien sufrikarioa.

Bittor Elizagoien:

Haseran oso gustora nengon
kantatzen nuen aitz errez
Manolok puru txiki batzuek
eman ta goxoki errez
gero kartzelan erdi nahasia
hor ibili naiz aldrebes
laugarren aldiz berriz brontzea
nahiz ez naizen jazten urrez
hauen puestoak aldatzen dira
baina hirugarrena ez.

Xabier Legarreta. Nafarroako Aurrezki Kutxaren izenean Migeltxo Arretxea jaunak emango dio oroigarria.

Estitxu edonork esango luke
ez daukazula bihotzik
baina txapela zeure da ta
ezazula hartu lotsik
Hatzu ditugu bromak
Estitxu zorionak
txapela beltza ezezik
Hollywood-eko Oskar bat ez da
baina hartu leike pozik. (b)

Estitxu Arozena. Mariano Izeta, "Nafarroako Bertsozale Elkarteko" lehendakariak emango dizkio oroigarria eta txapela, Vianako Printzea Erakundearen ordezt.

Txapela jantzi eta burura
datoz aipamen ugari
Narbarte, Itturen, Labaien eta
Donostiko taldeari
eta nola ez, Bortziritako
eskola famatuari.
Nahiz ta hemen egon kantari
aipamentxo bat airari
orohar familiari
baina txapela eskeintzen diet
euskal preso guztieri
ta baten ere Iruñan dagon
Juan Migel goizutarrari.